



uk

243. zenbakia / 2013ko abenduaren 3a

URTEAN 20€

Urtean UK aldizkariaren 20 zenbaki
 Urte osoan Uribe Kostan gertatzen denaren barri
 Urte osoan eskualdeko euskarazko aldizkari bakarra zure etxean
 Urte osoan argazki zahar eta barriak
 Urte osoan zure proiektuak lau haizetara
 Urtean 20 euro

uk  Harpidetu eta jaso UK zure etxean, hamabostero. Urtean 20 euro.

www.ukaldizkaria.biz **neuk ere gura dot** UK URIBE KOSTAKO ALDIZKARIA UK 94 491 13 37 UK uk@aldizkaria.biz



DACIA DUSTER BERRIA
 Probatuz gero, arrisku handi bat hartuko duzu: erosi egin beharko baituzul!

EZ UKO EGIN EZERI

3 URTEKO² bermea edo 100.000 km

10.200€-TIK AURRERA¹
 +TEKNOLOGIA +MOTORIZAZIO +LUR OROTARAKO IBILGAILUA

Dacia Duster: kontsumo mistoa (l/100km) 4,5 eta 7,0 artean. CO₂ isuriak (gr/km) 123 eta 185 artean.

BILBO BERRI JON ARROSPIDE, 20. TEL 94 448 39 00. DEUSTU · www.bilboberri.com
LEIOA BERRI AUTO IPARRAGIRRE HIRIBIDEA, 94. TEL 94 480 42 90. LEIOA · www.renault.es/concesion/leioaberri

UK URIBE KOSTAKO ALDIZKARIA

ARGITARATZAILEA: Boluntzarreta Elkarte
 HELBIDEA: Martikoena 16, 2. solairua 48992 GETXO
 e-mail: uk@aldizkaria.biz / Posta Kutxa 171 / Tf. 944 911 337
 ZUZENDARIA: Irantzu Sagaminaga
 ERREDAKZIOA: Zuberua Iturburu, Julen Nafarrate, Nerea Gujarrubia, Irantzu Sagaminaga
 FOTOGRAFIA: Asier Mentxaka
 TESTUEN ORRAZKETA: Ziortza Vega
 KOLABORATZAILAEK: Jorje Perez, Bittor Egurola, Armando Llamas, K. Olate, Amaia Arriaga, Aritzta Bergara, Ixone Vega, Algortako Bertso Eskola eta Bizarra Lopoan Euskara Elkarte
 MARRAZKILARIA: Laurita Siles
 PUBLIZITATEA eta SUSTAPENA: Erika Martinez (944 911 337)
 FILMAZIOA: Parima Digital S.L. / INPRIMATEGIA: GESTINGRAF
 LEGE GORDAILUA: BI-1878-00
 ISSN: 1576-6799
 © Boluntzarreta



ERAKUNDE LAGUNTZAILEAK

Non zer

4. PLAZA.
5. IRUDIA. Gobela ibaia.
6. FACEGUK. Larrabasterako pasabideak egiteko ezetzari zer iritzi?
7. LEHEN ETA ORAIN. Algortako etorbidea, kasinoaren parean.
8. TALAIA. Beste begirada bat eskualdeari.
11. ERRETRATUA. Nahikari Ayo.
12. HERRIZ HERRI. Getxo 12. Leioa 16. Erandio 18. Sopela 20. Berango 22. Gainontzeko herriak 23.
25. AGENDA.

SAKONEAN

26. ALBUMA. Plentziako alde zaharra.
28. ARGAZKIA. Plentziako Abanikoa, Isuskitza.
30. BERBETAN. Jon Urraza Intxausti.
34. FOTOGRAFIA. Fede Merino.
40. SAKONEAN. Kostalderako interesak.

KULTURA ETA AISIA


42. ZINEMA. Mendi Film zinemaldia Bilbon.
43. MUSIKA. Travelin' Brothers Getxon.
44. LIBURUAK. Miren Agur Meabe eta Uxue Alberdi eskualdean.
45. KIROLAK. Kimet, euskarazko eskaintza.
46. ELKARRIZKETA. Alberto Galindo eta Patxi Lasa.
47. JENTILKOKA. Aidekoren olerkiak.

AMAITZEKO

49. PINTXOTAN. Falafela.
50. HOROSKOPOA.
51. KOMIKIA. Laurita Siles.
52. DENBORAPASA ETA LEHIAKETA.
53. FLASH BACK. Biotz Alaioak Zestoan, 50eko hamarkada.
54. AITORMENAK. June Ansoleaga.

Azala: Fede Merino

www.ukaldizkaria.biz



30 Jon Urraza

Berbetan

Algortako aktore, gidoigile eta zuzendariak *Morrison eta Gartzia* antzerki-az eta pelikulaz berba egin digu.



11 Nahikari Ayo



54 June Ansoleaga

aldizkaria **etxean** jaso gura baduzu

HARPIDETZA > bete azpiko fitxa eta guri bidali

Izena..... Deiturak.....
 Kalea/zenb..... Herria.....
 e-mail.....
 Telefonoa..... Mugikorra.....

Urtero 20 euro 30 euro 50 euro
 beste kopuru bat euro

Kontu zenbakia (20 digito)
 □□□□ □□□□ □□ □□□□□□□□□□

UK Uribe Kostako Aldizkaria 171 posta kutxa, 48991 Getxo uk@aldizkaria.biz tf. 94 491 13 37

Leihatila

> Amaia Arriaga

Abileziak

Metroan noa zutunik eta txundituta begiratzen diet pantaila txikiaren gainean erpuruak bizi-bizi mugituz mezuak idazten ari diren bi gazteei. Hori da abilitadea hori! Alboko beltzaranak eskuetan daraman gailuan kolorezko laukitxoak ikusten ditut gora eta behera dantzan, eta gizon helduaren pantaila handiagoan testu luzea antzeman dudan arren, albotik begiratuta ezin asmatu zein liburu klase irakurtzen ari den. Beste aldeko neska-mutilak belarrietan aurikularrak jantzita doaz, baina esku arteko tramankuluei begira.

Emakume edadetu baten begiradarekin baino ez dut egin topo, ia denak beherantz begira doaz eta. Baina, sartu berri den emakumeak, ezustean, hau eguraldi petrala! esan eta solaskide hartu nau, ezagunak bagina legez. Buruz buruko jardunean abila perutar hau. Metrotik irtetea aterkipe berean joan gara elkarrekin etxeko kale kantoiraino bala-bala, behin berbetan hasita auzokide garela jakin dugu eta.

gu geu**Egunak eta zenbakiak**

Gure ustez euskarak zenbat egun dituen daborduko badakizu, gauak ere badituela ez ahaztu gero! Argilunetan ibiltzen ikasi (behar) dugulako, batean ikasi-bizitakoak bestean interpretatzeko...

Gabon-sasoiaurre honetan Antzerkiak UK honetako orri andana bete dizkigu, eta han eta hemen hirigintza kontuak eta gehiegikeriak ere gehiagotan aipatu ditugu oraingoan... Batzuetan, hala gertatzen da kontuak batzen direla eta...

Eta urte amaierarantz goazen bitartean, gu ere kontu-kantari eta kontu-kantari gabilta, horixe bada: "kontuek iten!". Zenbakiak, hotzak badira ere, batzuetan beroaldia ere erakar dezaketela kontatu digutelako.

Baina, azken aldian, a ze hotza, aizue! Eta sasoi honetako ohiko hotza bezala, urtero legez, Olentzerori eta Mari Domingiri eskutitz bana idazten gabilta; dagoeneko bai, halakoak denboraz egin beharrekoak direlako, norik jakin euren gaitasuna heltzeko zenbat egun beharko dituen gutunak! Barru-barruan badakigu zer eskatuko diegun: 2014 osorako UK oparitzea!!

Eta zuk?

UK-ko lan-taldea**Iritzia**

Aurreko UK-n jaso zenuten kanpaina, egitasmo, iritzi, asmo, egiteko, konbentzimendu honen barri. Kartela ikusgai jartzea ez ahaztu, eta gogoratu:

Euskarak 365 egun

Euskararen Nazioarteko Egunaren atarian euskaraz bizi, aldarrikatu, plazaratu, izan eta ospatzeko deia egin dugu Euskaltzaleen Topagunetik, herriz herri antolatuta dauden euskaltzaleen elkarteetatik.

Aurten, Euskarak 365 Egun dituela aldarrikatu nahi dugu, euskaraz nonahi eta noiznahi aritu nahi dugula, baina orain eta hemen nahi dugula euskaraz bizi. Euskaraz bizitzeko hautua egin dugunon aldarrikapena

da, baina aldarrikapenetik haratago doana, ekimenetik eta antolakuntzatik asko duena. Euskaltzaleon hautua, hautu antolatua izan da urtetan; antolatzeko izan dugun bisioa hizkuntza komunitatearen garapenaren oinarrietako bat izan da: jakin dugu biltzen, elkarren arrimuan eragiten, hedabideak sortzen, euskarazko kulturagintzari bizia ematen, euskarazko hezkuntza antolatzen, aisialdia euskaraz bizitzeko guneak loratzen, helduak euskalduntzeko sarea osatzen eta transmisio mekanismoak martxan jartzen. Jakin dugu, batez ere, kolore

anitzeko euskaltzaleentzat euskaltasunean oinarritutako espazio askeak egituratzen. Hautu hori egin dugun euskaltzaleok osatzen dugu euskararen herriaren muina eta erantzukizunez jokatzeko jarraitzea dagokigu.

Gure esku dago euskararen herria osatzen jarraitzeko baldintzak sortzea. Euskaltzaleon ekarpena behar beharrezkoa izango da etorkizunean ere, inoren zain egon gabe, jarraitu behar dugu espazioak sortzen eta geureganatzen, harreman sareak ehuntzen, ardurak eskatzen eta hartzen, botereguneetan eta inguru hurbilenetan eragiten. Euskaltzaleen esku dago euskararen herriaren garapena: herriaren antolatzen diren euskaltzaleen esku, administrazioetan erabakiak hartzeko ardura duten euskaltzaleen esku, harreman sareak ehuntzen diharduten euskaltzaleen esku, enpresatan lanean eta aginte organotan ari diren euskaltzaleen esku, zure eta gure esku.

Plazara irten gaitezen, herria, kalea, plaza, euskaraz bete dezagun. Bizi gaitezen euskaldun eta euskaltzale, geu izateko euskararen herrian.

Euskaltzaleen Topagunea

Hekimen Euskal Hedabideen Elkarteak salatu nahi du Ateak Ireki izeneko webgunearen itxiera, eta elkartasuna agertu nahi die atari hori martxan jarri eta bertan lanean aritu diren guztiei. Hekimenek informazio askatasunean sinesten du. Komunikabide bat ixteak askatasun horren aurka jotzen du bete betean, komunikabideek horixe egiten dutelako, informazioa askatasunez zabaldu, hedatu eta gizarteratu. Ateak Ireki ekimenaren galera, alde horretatik, herritarrek informatuak izateko daukaten askatasunaren kontra doa.

Donostian, 2013ko azaroaren 14an

Hekimen

Herri Ekimeneko Euskal Hedabideen Elkarte

OHARRA: Hekimeneko kide den Tokikom taldeko partaide da UK.



NEGURI, AZAROK 21

Oraingoan ez... / Oraingoan ez du gainezka egin Gobela ibaiak. Negua bat-batean etorri zen azaro amaieran eta astetan egon da euritan, barra-barra eta lotu barik. Uriolak gertatu dira ia, ibatek ur asko ekarri dute, baina itsasadarrak eta Gobelak ere. Herritarrek eme ibili behar izan dute, baina Gobelak ez du gainezka egin. Badirudi, momentuz behintzat, arroan egindako laneak emaitza ona ekarri dutela. Neguri auzoa dugu horren lekuko: irudi hau bertakoa da, azaroaren 21ekoa. Eremua urez bete zen, ibaiari aukera emonez ohiko bideari jarraitzeko. ○ / Argazkia: Asier Menteak

Auzokideen iritzia jakin gura duzu? Herrietan pil-pilean dauden gaiak, galdera umoretsuak, eztabaida sor ditzaketenak... Idatzi galdera **gure facebook**-en eta zeure partez luzatuko dugul!

Zer deritzozu Larrabasterrako pasabide goratuak jartzeko baimena ezeztatzeari?



Sestao

Jorge Lago

> atezaina

Gauza ona da pasabide goratuak egitea. Ez dakit zergatik Foru Aldundiak ez duen baimenik ematen. Nire ustez oinezkoentzat eta kotxe gidarientzat onuragarria izango litzateke aldaketa hau. Oso garestia ez bada, eta herriko jendearen onerako izatekotan, egin egin beharko litzatekeela iruditzen zait.



Sopela

Alain Gabarain

> langabea

Hildakoak egon badira pasabide horietan eta obrek in arriskua gutxituko balitz, pasabide goratuak eraikitzeari ondo deritzot. Sopelarentzat aurrerakuntza handia izango litzatekeela uste dut. Dirua beste gauza batzuetan gastatu beharrean, honen garrantzitsuak diren beste batzuetan egin beharko lukete.



Berango

Jon Bilbao

> ikaslea

Bizkaiko Foru Aldundiak beste hainbat proiektu egiteko dirua ematen badu normalean, ez dakit zergatik lan honetarako ez duen laguntzarik ematen. Istripuak gertatu badira gainera, arrazoi gehiagorekin. Sopelako Udalaren eta Bizkaiko Foru Aldundiaren arteko liskarrak kontu honetan oihartzuna izan duela uste dut.



Sopela

Maite Zalbidea

> erizain-laguntzailea

Zeri itxaron behar diote? Beste hildako bat egoteari? Beharrezkoa da pasabide goratu hori jartzea. Nire ustez Udalak hori aurrera eraman ahal izateko konpromisoa hartu beharko luke. Bestela herritarrek gure kabuz zerbait egin beharko genuke. Argi dagoena da gure segurtasunerako beharrezkoa dela.



Sopela

Cristina Moure

> langabea

Bide goratua egiteko konpromisoa aspaldi hartu zuen Udalak; ez da norma la oraindik berdin egotea. Dena prest, lanak martxan zeudela uste nuen, iaz hasi baitziren obrak egiten, gero moldatu ahal izateko. Azkenean aurrera eramango ez badute, ez dakit zertarako egin zizuten aldaketak pasa den urtean.



Berango

Maitane Acebo

> erizaina

Nahiz eta Foru Aldundiak diru-laguntzarik ez eman, Udalak lanak egin beharko litzatekeela uste dut, segurtasunerako beharrezkoa delako errepide hori ondo jartzea. Ni ez naiz Sopelan bizi, baina egunero noa euskaltegira edo lagunekin, eta uste dut auzokideek edo dendariak ere lagun lezatekeela diruarekin.



GETXOKO UDAL LEJURUTEGIA



ASERMENTYAKA

Iraganez doa denbora* beti / ALGORTAKO ETORBIDEA

* **Denbora:** gauzak gertatzen eta izakiak aldatzen diren bitarte mugagabea.

uribitakora > neguko argia



Larrabasterra, 2013ko azaroa

Testua: **Beñat Vidal Gurrutxaga** / Argazkia: **Asier Mentxaka**

* Doinua: Trumoa ortzi beltzean hoska

San Simon eta San Juda kanta euskaldunontzat seinale, marka; uda joan zen ta ate joka negu gorria hor da ta. Txapelketako finala, azoka, jai-zubi ta gabon kanta baina hala ere, kaka! Zergatik egin ohi zaigu horren luze neguko aldapa?

Goiza, arratsa, gaua hurrena; hori omen da ohiko ordena. Normala ez dena da hogeita lau orduko ilunpe honena! Euskal Herrian bizi gara ta tokatu zaigun kondena hau eguraldi alena kaleetako farolak ere nahastera heltzen dena!

Dena trumoa, dena euria temperatura baxuegia... honek ezin du hobera egin borraska hain da handia. Ahorik aho dabilta berbok, dena omen da egia. Zuk ez sinestu erdia, dena lainoa denean ere agertzen baita argia.

Uribitakoran parte hartu gura duzu? Bidal egiguzu atal honetan agertzea gura zenukeen argazkia eta bertan ikusiko duzu, bertso eta guzti: uk@aldizkaria.biz

Durangoko Azoka > abenduaren 5etik 8ra

Durangoko Azokaren 48. edizioa, urtero legez abenduagaz batera dator. Aurten hilaren 5etik 8ra ospatuko da eta Durango osora zabalduko da, herria "Kulturaren Plaza" bihurtuz.

Oraingoan, ohiko sarreraz gainera, atzeko aldean beste sargune bat egongo da. Horrez gainera, gune bi lekuz aldatuko dituzte, Ahotsenea Landako atzean ezarritik, eta Irudienea Zugaza zineetan; gainontzeko guneek, barriz, bere horretan jarraituko dute. Saguganbara, Plateruena, Ahotsenea, Irudienea, Kabi@ eta Szenatokia guneetan hamaika eskaitza egongo da.

Bestalde, aurtengo Argizaola saria William A. Douglass antropologoak (Reno, 1939) jasoko du, euskal kultura eta diaspora zabaldu eta ikertzeagatik. Ameriketako Estatu Batuetako mendebaldeko euskal immigrazioaren aditu ezaguna Renoko Basque Studies Program-aren sortzaile izan zen, eta hiru hamarkadaz programaren zuzendari ere bai.

Horren albotik, aurtengo herrialde gonbidatua Eskozia izango dela ezin aipatu barik utzi; herrialdearen arlo politiko eta kulturala ezagutzeko eta aztertzeak aukera eskainiko du Azokak. Abenduaren 5ean, inaugurazio-ekitaldian (18:30) Eskoziako gonbidatu batek parte hartuko du eta hilaren 6an mahai-ingurua egongo da Eskoziako autodeterminazio prozesua aztertzeak (12:00). Azken egunean, barriz, abenduaren 8an, antzerkigintza gaelikoz lantzen duen Catriona Lexy Campell sortzailea egongo da Szenatokian.

Gerediaga Elkarteko lehendakari Nerea Mujikak nahiz eta balorazio ekonomikorik ez egin, gerrikoa estutzeko beharra azpimarratu du. Diru laguntza pribatuak %10 jaitsi direnez, erakunde publikoei arduraz jokatzeko eskatu zien.

Halere, Azokak guztira 130 emanaldi baino gehiago eskainiko ditu, 238 erakusmahai (iaz baino 15 gutxiago) eta 122 parte-hartzaile (pasa den urtean baino



Info+: www.durangokoazoka.com

bost gutxiago) izango dira, eta 226 liburu zein 68 disko barri aurkeztuko dituzte. Emanaldietako 50 baino gehiago zuzeneko musika emanaldiak izango dira, estilo askotakoak euskal bakarleri zein taldeenak, eta gune bitan eskainiko dira: Ahotsenean eta Plateruena. Plateruena aste bete lehenago abiatu du egitaraua, esaterako Ruper Ordorikak *Azokre koxkorrak* disko barria aurkeztu zuen. Azokaren agurra, Korrontziren kontzertuagaz helduko da azken eguneko 20:00etatik aurrera. ○

webgunea > Getxoko koloreak

2007ko abuztuan hasi zen Pilar Etxebarria *Getxoko Koloreak* izena daukan loreen blogagaz. Daborduko eguneratzen ez badu ere, 2010 urtera arte Getxo eta inguruetako lora eta landareen artxibo ederra sortzea lortu du argazkien bitartez. Bere txakurragaz eguneroko paseoa ibilitako Getxoko hainbat lekutako landare-diaren erretratua egin du, ezagutu dituen bazter guztietatik gustukoena harrapatu

eta omenaldi txikia egiteko. Webguneko sarrera guztiak kontuan hartuz, gutxi gorabehera 400 landare, lora, zuhaitz eta fruta-arbola batzen ditu, bakoitzaren izen zientifikoa, euskarazkoa eta gaztelarazkoa emanez. Inguruetan aurkitu daitezkeen landare mota ezberdinak ezagutu gura dituzten guztiak bloga bisitatzera animatzen ditugu helbide honetan: ○

Info+: getxokoloreak.nirudia.com



Mapa, diapositibak eta argazkiak daude



Binilo apaingarria

Diseinatu zure lekua biniloarekin apainduz

Biniloaren tamaina: 43 x 58 cm
6 eredu ezberdin
Espatula dohainik

Eredu gehiago ikusteko, gure binilo katalogoa eskatu

BAKARRIK

19,90 €

BEZ BARNE



global printers
applications + business

Villa de Plentzia, 6
GETXO
Gobela metro
geltokiaren ondoan

saiazgetaria

HOTELA

Roke Deuna 25
20808 Getaria
Gipuzkoa



...harria ...lehengo garaiak... ...itsasoa

www.saiazgetaria.com / info@saiazgetaria.com / Tf. (+34) 943 140 143

Euskara etxez etxe



- jostailu edo joku bat
- liburu bat
- musika CD bat
- DVD edo CD-ROM bat.

Seme-alabak haur edo lehen hezkuntzan ari badira...
...etxera eraman dezakezu

Euskara zerbitzuak zure eskura jarri ditu hori guztia
 biltzen duten poltsak.

Hartu eta gozatu,
 eta besteek ere aukera izan dezaten ...
 ... zaindu eta bueltatu.

**Poltsak, eta materiala erabiltzeko oharrak,
 UDAL LIBURUTEGIETAN aurkituko dituzu**

Altzaga: Jesus Aranburu 6-8

Astrabudua: Josu Murueta kultur etxea

www.erandiokoeuskarazerbitzua.com

euskara@erandioko-udala.com

944890128



"Bertsolaria ez da jaiotzen, sortzen da. Behar dira bertsolari onak, txarrak, poteorako, plazarako..."

Nahikari Ayo Acebo > euskara ereiten!

ETB-1 jarri, eta bertso-saioak aditzen egoten zen txikitik Nahikari Ayo erromotarra: "Ikusten nituen gizon batzuk abesten, eta esaten nuen, nik zergatik ez?". Txikitatik datorkio, beraz, bertsolaritza eta kantagintzarekiko zaletasuna: "Aitak beti pilo bat abestu dit, oroitzapena daukat domeka goizetan tokadiskoa jarrita izaten genuela: Egan, Akelarre... tumatxak!". Bederatzi urtegar bertsolaritzan hasi zen Betiko ikastolan Joseba Santxogaz, eta 14 urtegar, barriz, ALBEn, tartean atsedean hartu zuela aitortu duen arren: "Sasoi batean futbolagatik utzi nuen, entrenamenduak eta bertsoak ordu berebete zirelako!". Gaur egun, gai-jartzaile dabil bertso-saioetan: "Astebete lehenago hasten naiz saioa prestatzen; egunkariak aztertu, egoera bitxiak bilatu...". Bere ogibidea ere bertsoari lotuta dago, bertso-irakasle baitabil Leioa eta Getxoko hezkuntza-zentroetan, harrobia sortzen: "Euskara-eskoletan 800 bat ikasleri bertsolaritza irakasten diet asteen behin". ALBEn ere, 30 ikaslegaz dabil irakasle, gogotsu: "Nik argi daukat bertsolaria ez dela jaiotzen, sortzen da. Behar dira bertsolari onak, txarrak, poteorako, plazarako... bakoitzak bere bidea topatu behar du!". Bere lana aitortzeko asmoz, aurten Getxoko Udalak berari eman dio Argia Ereiten saria: "Ihusioa egin dit, aitorten bat delako, baina 31 urtegar jasota... orain ez dakit zer espero duten nitaz!". ○ Argazkia: **Asier Mentxaka** / Testua: **Julen Nafarrate**

Romo kultur etxea, 2015ean

Nagusien etxea eta udal-euskaltegia eraikin barrira aldatuko dituzte, **baina** eraikin **zaharrek** erabilera **publiko** eta soziala **izango** dutela **ziurtatu du** alkateak: **udal-eraikinak** izango dira

Romoko kultur etxe barria 2015ean amaituko dute eraikitzen. Lanak esleitzeko prozesua abiatu du Udalak, eta hori egin ostean, lanek 17 hilabete iraungo dutela aurreikusten da. Romoko nagusien etxea eta udal-euskaltegia bertara lekualdatuko dituzte eta Gaztelekua ere izango du.

Romoko kultur etxe barriaren bigarren fasea egiteko lanak udabarrirako esleitu dituzte gobernu-taldeak; eraikinari berari dagokio fase hau. Horren ostean, gehienez 17 hilabete iraungo dute lanek eta, beraz, 2015ean zabalduko ei dute kultur etxea. Fase honek 5,5 milioi euro kostatuko du.

Zazpi solairu izango ditu kultur etxeak. Sotoan areto nagusia kokatuko da: 215 pertsonarentzako eserlekuak izango ditu eta, beharrezkoa denean, kendu ahalko dira; aretoak beste sarrera bat izango du, kaletik zuzenean. Solairu honetan, gainera, aretoari lotutako bestelako zerbitzuak ere ipiniko dituzte, adib.: aldagelak.

Beheko solairuan, informazio-gunea, kafetegia, erakusketa-gela, eta gaztelekua egingo dituzte. Imanol Landa Getxoko alkateak dioenez, gaztelekua “*erreferente bilakatu da eta nerabeentzako jardueretarako epizentro izango da: Getxoko gune horretan kokatzeak ahalbidetuko du gazteak lan egiten duten beste eragileak elkarlana garatzea*”.

Lehenengo solairuan kokatuko dituzte liburutegia (400 metro koadrokoa), hementerok eta ikasketa-gelak, besteak beste. Bi-



Lanak esleitu ostean, gehienez 17 hilabetetan eraikiko dute kultur etxe barria

garren solairuan, barriz, umetxoentzako liburutegia, edoskitze-gela eta elkarteak erabili ahal izateko gelak egongo dira, besteren artean.

Hirugarren solairuan egongo da nagusien etxea: egungoak eskaintzen dituen

“Eraikinak izango du: 215 lagunentzako areto nagusia, hainbat liburutegi, entsegu eta grabaketa-gelak, e.a.”

zerbitzu guztiak bermatuko ditu, baina handiagoa izango da. Aipatzea eraikinak hiru igogailu izango dituela: horietako batek 21 pertsona eroan ahalko ditu, beste biek bederatzina lagun.

Baina goazen aurrera. Laugarren solairuan ipiniko dute udal-euskaltegi barria: 10 ikasketa, ordenagailu-gela eta bulego-

ak izango ditu, baina posible izango da ikasgelak bestelakoetarako erabiltzea klase orduetatik kanpora. Azkenik, bosgarren solairuak hartuko ditu entseguetarako aretoak eta grabaketa-gela.

Esan legez, nagusien etxea eta udal-euskaltegia kultur etxe barrira aldatuko dituzte; beraz, argitzeke dago zer gertatuko den horien gaur egungo kokalekuak. Alkateak ziurtatu du aurrerantzean ere udal-eraikinak izango direla, baina gogoe-ta egin behar dutela zer erabilera emon erabakitzeke: “*Udalak ez ditu salduko, eta erabilera publikoa eta soziala izango dute*”.

Proiektu honek protesta eta desadostasun ugari sortu du Romoko auzotarren artean, baina hasierako egitasmo beragaz aurrera egingo du Udalak. ○

Info+: www.getxo.net

Maidagan 2014 amaieran

prest egongo da, lizitazio-prozesua abiatu da-eta



Maidagan ingurua

Getxoko Maidagan aldean lurperatutako metroko azaleko zatia urbanizatzeko proiektua onartu du Gobernu-taldeak azaro amaieran, horrela lanak esleitzeko lizitazio-prozesuari hasiera emonez. Izan ere, “*herritarrek parte hartzeko prozesua itxi du*” daborduko Udalak. Lizitazio-prozesuak sei hilabete iraungo du eta urbanizazio-lanek beste bost. Beraz, 2014 amaieran prest egongo ei da Getxoko aisi-eremu barria. Lanen kostua 1.000.000 eurokoa izango da, eta horietatik 800.000 euro Garraio Partzuergoak ipiniko ditu.

Udaletik jakinarazi dutenez, auzotarren 50 iradokizun inguru bildu dituzte eta horietatik “*idea ugari jaso dira*” proiektuan, besteak beste: hiri-altzari, jolasgune, lorazaintza, irisgarritasun, argi, aparkaleku eta bidegorriari buruzkoak.

Berreskuratutako gune barriak 4.008 metro koadro izango ditu eta Getxoko gainontzeko plaza, parke eta aisi-guneen antzeko ezaugarriak izango ditu: “*Jolasguneak eta egoteko aldeak egokituko dira (horietako batzuk estalitakoak), eta berdegunea areagotuko da*”. Hain zuzen, aisi-gune bat egokitze asmoa dauka Udalak, hiri-altzariak (paperontziak, bankuak, aulkiak, iturriak, kale-argiak, e.a.), eta berdegune eta lorategiak izango ditu.

Gainera, Maidaganeko eremu barria Urduña kaleagaz lotuko dute oinezkoentzako ibilbideen bitartez, eta urbanizatuko den zatian oinezkoentzako pasealekua ere izango da. Irisgarritasunari dagokionez, “*indarrean dagoen araudia betez*” egingo dituzte lanok. ○

Info+: www.getxo.net

GETXOKO UDALA SEVILLA II KARTZELAN DAUDEN PRESOEN ALDE

Getxoko Udalbatzak Sevilla II kartzelan gose greban dauden presoek aldeko mozioa onartu zuen azken bilkuran: Etxerat taldearen mozioaren alde bozkatu zuen Bilduk, kontra PSE-EEK, EAJ abstenitu zen eta PPK bilkuratik alde egin zuen. Urriaren 27tik gose greban daude Sevilla II-ko euskal presoak eta eskatzen dute: bakartzea amaitzea, euskal presoak batera egotea, oinarriko eskubideak errespetatzea eta “*etengabeko jazarpen eta erasoak amaitzea*”. Horien artean dago Urtzi Paul Larrea getxoztarra, osasun arazoak direla-eta greba utzi behar izan zuena. Halere, borrokaldean jarraitzen du, gainontzeko presoak batera; gaur egun 13 euskal preso daude kartzela horretan.

HITZALDIA PUBLIZITATE ETA MANIPULAZIOARI BURUZ, HILAREN 11N

Publizitatea, marketina eta bestelako manipulazioak hitzaldia emongo du Sole Calzadak, gaztelaniaz, abenduaren 11n eta 19:00etan. Algortako kultur etxean ipini du hitzordua Bolivartiar Ikaskuntza Elkarteak, ekimenaren antolatzaileak. Hilean behin antolatu ohi du talde horrek hitzaldi bat Algortan, eta hauxe izango da urte honetako azkena.

Info+: www.bolibar.org

BERDINTASUN ARLOKO EKITALDI BI ABENDUAN

Hil honetarako jardura bi antolatu ditu Getxoko Berdintasun arloak. Batetik, abenduaren 9an, *Nutrizio-hezkuntza menopausia aroan* hitzaldia emango du Toscana Viarrek, gaztelaraz. Algortako kultur etxean izango da, 19:00etan. Bestetik, abenduaren 16an, *Macho-maris* maskulinitateari buruzko antzezlan umoretsua egingo dute Markus eta Juanmanoloren showa da, “*gizonagoak diren gizonei buruz*”. Ondoren, foroa izango da Zipiritintzen berdintasunaren aldeko Ermuako gizonen taldeagaz.



**Kalitatea eta moda
prezio paregabeetan**

Ibaiondo 7, 48930 Erromo-Getxo Tf. 94 656 21 57

Juan Luis Landa > ilustratzailea

“Orain 500 urte gertatutakoak ondorio politiko eta identitario handiak izan ditu”



Bizkaiko zubian ikus daiteke 1512: *in memoriam* erakusketa abenduaren 8ra arte

Getxoko Komiki-azoka izan da azaroan eta hainbat erakusketa ikus daitezke Areetan, horien artean Juan Luis Landaren 1512: *in memoriam*. Bizkaiko zubiko kanpoaldean dago eta, beraz, edozein ordutan bisita daiteke, abenduaren 8ra arte. Landa Erreterian jaio zen eta hiru hamarkada daroa ilustratzaile profesional lanean. Ipurbeltz aldizkarian hasi zen 1984an eta, ordutik, lan ezagun eta garrantzitsuak egin ditu: *Kalabaza tripontzia*, *Gabai*, *Brujas*, *NUR*, e.a. Azken liburua dauka erakusketa honi izena eta marrazkiak emoten dizkiona.

—1512: *in memoriam* liburutik sortu da erakusketa, zer jasotzen du?

—Irudi gehienak liburu horretakoak dira, baina beste ilustrazio batzuk ere sartu ditugu *Leyendas*, *Sorginak* eta *NUR* liburuetakoak. Baina, batez ere, 1512: *in memoriam* liburua da protagonista.

—Nafarroako konkistari buruzkoa da, zerk bultzatu zintuen liburua egitera?

—Orain dela zortzi urte konturatu nintzen hurbiltzen ari zela konkistaren 500. urteurrena. Beti erakarri nau asko gai horrek. Data hurbiltzen zenez, liburutegira

jo nuen, ez nuelako ondo ezagutzen zer gertatu zen garai hartan. Testu pila bat topatu nuen eta oso mingarria iruditu zitzaidan gertatutakoa. Nafarroako erreinuak ia 800 urte iraun ostean, era lotsagarrian konkistatu zuten, Fernando katolikoaren agindupean. Pentsatu nuen jende gehienak ez zekiela ezer datu historiko horietaz eta burutatu zitzaidan egin behar zela testu errazagoa gertakari horiek guztiak kontatzeko, eta ilustrazioekin laguntzea, jendearengana iristeko. Bestalde, datu horietan agertzen ziren pertsonaia historiko ho-

riekin nire barruan sortzen hasi zen nobelaren haria. Azken finean, liburua nobela historikoa da. Gainera, benetako pertsonaiekin egituratzen da gertaera horiek guztiak kontatzeko: konkista nola mamitu, gauzatu eta garatu zen, eta azkenean nola bukatu zen dena.

«Kontatzen da Nafarroako konkista nola mamitu eta garatu zen»

—Gure herriaren eskubideen aldarrikapena ere bada?

—Bai, euskaldun bezala mingarria iruditu zitzaidan hori guztia eta ozen kontatu nahi nuen. Gero gertatu zen, kaleratu nuen daten inguruan beste mila liburu argitaratu zirela gaiari buruz, baina duela zortzi urte ezin jakin nezakeen oihartzun hori izango zuenik. Pentsatu nuen gai hau zuloatik atera behar zela eta jendeak jabetu behar zuela hemen gertatutakoaz. Garai hartan gertatu zenak ondorio politiko eta identitario handiak izan ditu gudan, baita gaur egun ere. Jende askok ez daki nondik datorren sentitzen duen hori, non dagoen aipatu sentimendu horren jatorria. Eta duela 500 urte gertatu zena erabakigarria izan zen.

—Irudi ederrak dauzka, lan handia izan zen liburua osatzea?

—Bai, lan handia izan zen, oso nekagarria, baina buru-belarri sartu nintzen horretan eta, azkenean, bukatu ahal izan nuen. Erein argitaletxeak ere kristoren ahalegina egin zuen, ez baita batere erraza gaur egun horrelako liburu bat argitaratzea: kostu handia dauka eta edizio polita egin zuen. Eskerrak eman nahi dizkiot Kike Infanteri erakusketa egiteko aukera emateagatik, inoiz ez baitut egin horrelakorik. ○

Info+: www.juanluislanda.com

Itziar Lopez Uralderen oroi-lasterketa izango da abenduaren 15ean eta izena emon daiteke 12ra arte



Testigantza-lasterketak 2 km dauzka eta oroi-lasterketak 9 km

XXXI. Itziar Lopez de Uralde Oroilasterketa abenduaren 15ean izango da, domekan. Itxartu taldeak antolatzen du eta, ohi legez, lasterketa bi egingo dira: testigantza-lasterketa (2 km) eta ohiko oroi-lasterketa (9 km).

Parte hartzeko eta izena emoteko hainbat aukera dago. Batetik, oroi-lasterketan parte hartu gura dutenek 6 euro ordaindu behar dute eta, lasterketa amaitutakoan, kamiseta tekniko emongo dute. Dirua Laboral Kutxan sartu behar da (3035 0067 66 0671152428) eta, horren ostean, izen-emote orria helarazi behar zaio Itxarturi: itxartu.itxartu@gmail.com.

Info+: www.itxartu.com

Bestetik, testigantza-lasterketa egin eta kamiseta tekniko jaso gura duenak ere 6 euro ordaindu behar du. Horrela, lasterketa biak dortsal berberagaz egin ahalko ditu.

Azkenik, testigantza-lasterketan parte hartu baina kamisetarik gura ez dutenek ez dute dirurik ordaindu behar; bai, ordea, izen-emote orria helarazi antolatzaileei. Kasu guztietan izena emon behar da abenduaren 12a baino lehen. Testigantza-lasterketa 10:30ean hasiko da eta oroi-lasterketa 11:00etan, Faturako kiroldegiko eraikin nagusiaren aurrean. ○

ARGIHIZKIAK ALGORTAN URTE AKABURA ARTE

Argihizkiak erakusketa ikus daiteke hil osoan Algortako kultur etxean. Argazkiek osatzen dute, berauetan oinarritutako euskarazko testuakaz batera. Uribe Kostako 12 argazkilariren irudiak jasotzen ditu: Fede Merino, Elker Azketa, Willy Uribe, Aitor Galbarriartu, Iker Basterretxea, Sara de Diego, Juan Gomez, Natxo Pedrosa, Eduardo Camino, Luis de Isusi, Nagore Ayo eta Peru Isasi algortarrenak.

Info+: www.egizu.org

BOSTEKO ERAKUSKETA TORRENE ARETOAN

Bosteko erakusketa iritsi da gurera eta Algortako kultur etxean ikus daiteke abenduaren 29ra arte. Juana Garcia Pozuelo, Polariska Anderea eta Alvaro Gilen lanek osatzen dute aurten Bosteko. Orduetgia da: astez, 11:00-13:00 eta 17:00-20:00; zapatuetan, 12:00-14:00 eta 18:00-21:00; eta domekatan, 12:00-14:00.

Info+: www.getxo.net

EUSKARA-BATZORDEA BARRITU DU UDALAK

Getxoko Euskararen Aholku-Batzorde barria osatu da. Imanol Landa alkatea eta Koldo Iturbe Euskara-zinegotziagaz batera batzordean jardungo dute Gotzone Agirre, Matxalen Amas, Rozio Lucas, Kontxi Zuazubiskar, Idurre Iturriotz, Laura Lapeyra, Jabi Onaindia, Edorta España, Jon Azkargorta eta Jon Atxak.

Info+: www.getxo.net

BAPIRUKA GABONETAKO KOLONIAK, IZEN-EMOTEA

Bizarra Lepoan elkarrekin antolatzen ditu Bapiruke koloniak, 5 eta 12 urte bitarteko umeentzat. Abenduaren 23tik urtarrilaren 3ra izango dira eta izena emon behar da: abenduaren 4tik 6ra (bazkideek) eta 9tik 11ra (gainontzekoek), elkartearen bulegoan bertan (Martikoena, 16).

Info+: www.bizarralepoan.org

lagusana
liburuak eta letra txikia

Basagoiti etorbidea 59
(Tellagorri plaza)
48991 ALGORTA
Tf. 94 491 14 12
gusanalibreria@gmail.com

Jose Ramon Esparza Goicoechea > Uribe Kosta elkarte, Bizkaia Kirolak 2013 saria

“Aisia pertsona guztion eskubidea da eta, kirola, haren baitako aukera”

Uribe Kosta elkarteak jaso barri du Bizkaiko Aldundiaren Bizkaia Kirolak saria. Leioan dauka egoitza eta 30 urte baino gehiago daroa lanean, adimen-urritasuna duten bizkaitarrei zein beren senideei laguntza emateko, baita kirol arloan ere. Horregatik, 2002an sortu zen elkartearen baitan Uribe Kosta kirol elkarte.

—Zein da kirol-elkartearen egitekoa?
—Helburua da adimen-urritasuna duten bizkaitarren artean kirola bultzatzea eta garatzea. Horretarako, eskaintza iraunkorra daukagu, euren beharrei egokitu. Gaur egun 90 kirolari daukagu eta, besteak beste, igeriketa, saskibaloia, areto-futbola, mendia, golfa eta gimnasia praktikatzen dute. Gainera, hainbat kirol eta jendarte elkartegaz elkarlanean ari gara, adimen-urritasuna daukaten pertsonak kirola praktikatzera bultzatzeko.
—Eta zergatik sortu zenuten kirol arlo bereizitua?
—Gure ustez, aisia pertsona guztion eskubidea da eta, kirola, haren baitako aukera. Horregatik, baliabideak eta laguntza eskaintzen dizkiegu gure kirolariei, eskubide hori gara dezaten gainontzeko pertsonen baldintza beretan. Gainera, kirola prak-



Esparza, Getxon egindako agerraldi batean

tikatzeak badakartza onura fisiko, emozional eta sozialak, eta adimen-urritasuna daukateneen bizi-kalitatea hobetzen laguntzen du.
—Horretarako, zer bide daukazue, zelan lan egiten duzue?
—Beno, esatea ekimen guztiak garatzen dira ohiko kirol-guneetan. Horrela, azpiegitura publikoak partekatzen ditugu gainontzeko kirolariakaz: udal-kiroldegiak, eskolak, e.a. Kontua da gure kirol-jardue-

rak gidatzen dituzten teknikariak espezializatuta daudela adimen-urritasuna daukaten pertsonen egokitutako kirolean. Bestalde, gure kirol-egutegia iraunkorra da denboraldi osoan, eta aldi berean entrenatzen dugu eta parte hartzen dugu kirola sustatzeko ekimenetan eta txapelketetan. Esatea txapelketa mota bitan parte hartzen dugula: bai normaldutakoetan, adimen-urritasunik ez daukaten kirolariakaz batera, bai egokitutakoetan. ○

Ortutik Bulebarrera!

Nekazaritza eta abeltzaintza azoka egingo da **abenduaren 15ean**, domekan



Herriaren erdigunean lekutzen da azoka

Baseri eta etxeko produktu freskoak bertatik bertara dastatu eta erosi ahalko dira abenduaren 15ean, Leioako Nekazaritza eta abeltzaintza azokan: Bulebarren, eta Jose Ramon Aketxe eta Errekalde plazetan egingo da, ohi legez, 10:00etatik 15:00etara.

Nekazariak eta artisauek hainbat produktu ekarriko dute: barazkiak, txarrikiak, pastelak, gazta, ezti, ardaoa, txakolina e.a. Bestalde, abeltzaintza alorrari dagokionez, abereak erakutsiko dituzte: Behiak, idiak, zaldiak, poniak, astoak, ahuntzak, gameluak, llamak eta zebrak.

Gainera, lehiaketak eta bestelako ekimenak ere prestatu dituzte. Eguerdiko 11:00etan, Gure Ohiturak dantza talde-

ren emanaldia izango da eta, 12:00etan, ipar Euskal Herriko jokoak eta harrijasotzaileak; 13:00etatik aurrera baserriko txarri errea eta sagardo dastatzea egingo dituzte J.R. Aketxe plazan. Gainera, azokako behien eta idien arrazei buruzko azalpenak eskainiko dituzte eta, 14:00etan, ondoko lehiaketen sariak banatu: Idiazabal Gazta Jatorrizko Izendapenaren Bizkaitar Ekoizleentzako XV. Lehiaketa, eta salmenta postuak atontzeko eta girotzeko lehiaketa.

Bestelako ekintzetan ere parte hartu ahalko da: idi-gurdian eta ponian paseoetan, eta umeentzako tailerretan. Goiz osoan alaituko dute azoka trikitilariak eta txistulariak, beraz: gozatu eguna! ○

ANTZERKIA ETA MUSIKA KULTUR LEIOAN

Urtea amaitu aurretik hainbat ikuskizungaz gozatu ahalko dugu Kultur Leioan. Batetik, abenduaren 13an *Tempestad* lana antzeztuko du Barco Pirata-PTC taldeak, 20:30ean. Sergio Peris-Menchetak zuzentzen du eta sartzeko 15 euro ordaindu beharko da. Bestetik, abenduaren 20an, Quinteto Lisboa taldeak Portugalgo doinuak ekarriko ditu; kontzertua 21:00etan hasiko da eta sartzeko 18 euro ordaindu beharko da.

Info+: www.barcopirata.org eta www.hmmusica.pt/quintetolisboa

GAZTE ORKESTRAREN ETA LEIOAKO BANDAREN KONTZERTUA, 21EAN

Gezurra badirudi ere urteak berea egingo du laster eta Gabonakaz ospatuko dugu, betiko legez. Aitzakia horregaz, gainera, kontzertua eskaini ohi dute Leioako Gazte Orkestrak eta Musika Bandak Kultur Leioako Auditoriumen; eta aurrez ezin kale egin. Abenduaren 21ean izango da emanaldia, 20:00etan. Sarrera bakoitzak 4 euro balio du eta Kultur Leioan eros daitezke. Animatu eta bertaratu, kontzertu eder bezain originalak eskaintzen dituzte eta gure musikariak!

Info+: www.kulturleioa.com

GABONETAKO ANTZERKI ZIKLORAKO BONOAK

Abendu akabuan lau obra antzeztuko dituzte Gabonetan Antzerkiera zikloaren barruan: hilaren 26an, *Charlie* (Fernando Hurtado dantza taldea); 27an, *Manoviva* (Girovago e Rondella); 28an, *Kapsulak* (Markeliñe-Samfaina de Colors); eta 29an, *Clin!* (Pep Bou konpainia). Emanaldi bakoitzeko sarrerak 5 euro balio du, baina bonoa erosteko aukera dago; hartara, antzezlan guztiak ikusi ahalko dira 16 euroren truke. Danak izango dira Auditorium aretoan eta 18:00etan hasiko dira.

Info+: www.kulturleioa.com eta www.markeline.com

MR TALLER MECANICO
Coches, Motores Marinos y Fuerabordas
Mota guztietako konponketak: Azterketak, Gurpiak, Indargelzailak, Soinua...
Tf. 94 430 17 81
Bidezabal Kalea 9
48993 GETXO

BIZKAIA
irratia
BIZKAIA IRRATIA Uribe Kostan
F.M. 102.6 Mhz
www.bizkaiairratia.com

LUBERRI
Basolanak SL
Lorezaritza
Luberrri Basolanak, SL
Axpe ibaiertza 28A
beheko solairua B12 lokala
Erandio (Bizkaia)
Mugikorra: 629 41 18 38
Tf. :94 467 17 13
Faxa: 94 467 42 41
luberrri@euskalnet.net
www.luberrri.biz

- Soropila ezartzea
Lurzorua prestatzeko lanak, dreinatze lanak, ureztatze sistema ezartzea, funtsezko ongarritze lanak eta ereite lanak.
- Seropila zaintzea eta mantentzea
Moztea, ureztatzea, ongarritzea, egurastea, aratzea eta destrinkotzea, berrelikatzea, soropila gaitzak eta belar gaiztoak tratatzea.
- Inausketak
Hazteko, mantentzeko, berritzeo, zuhaixka apaingarriak inaustea, erabateko inausketak.
- Barrukaldeak lorategi bihurtzea

[erandio]

Galder Perez > antzerkigilea eta aktorea

“Antzerkia momentuko bizipena da, gaur eta hemen; hori da bere indarrik handiena”

Abenduan Galder Perez antzerkigilearen hiru obra ikus ahalko dira Altzagako azoka zaharrean: abenduaren 7an, helduentzako *La ultima oportunidad* lana; eta Gabonetan, umeentzako *Arratoitxo pinpirina* eta *Ahatetxo itsua*. Egileagaz berba egin dugu.

—*La ultima oportunidad* obra izango da lehena Erandion, zer kontaktzen du?

—Endredo-komedia da eta klinika bateko itxaron-gela batean gertatzen da. Intseminazio artifiziala praktikatzan dute klinika horretan, eta itxaron-gelan elkar topo egingo dute hazi-emaile batek eta intseminatu nahi duen emakume batek: bien artean gaizki-ulertzeak gertatuko dira. Umorezkoa izanik, asmoa da ikusleak ondo pasaraztea.

—Askotan erabiltzen duzu umorea zure lanetan, garrantzitsua da?

—Tokatzen denean, antzerkiak denetarako balio du-eta. Garrantzitsua da umorea, zalantza barik: bizitzari umorez aurre egiten badiogu errazago edo gusturago bizi gara. Antzerkia kulturaz gozatzeko beste modu bat da, istorioak gertutik bizitzen dira, antzerkia momentuko bizipena da, gaur eta hemen da; hori da bere indarrik handiena. Esperientzia bat da antzerkia.



Argazkilaria: Iñaki Mendi

—Gurutze Beitia eta Julian Iantzi dira protagonistak, Iantzi lehenengoz arituko da antzerkian profesionalki?

—Tipo ausarta da, oso langilea, eta oso ondo moldatzen da. Gainera, oso ondo lagunduta dago: Gurutze Beitia oso aktore ona da eta bikote polita osatzen dute.

—Gainera, umeentzako lan bi ere egingo dituzu Gabonetan; ohiko ipuinak dira, baina badaukate berezitasunik?

—Bai, moldaketak direlako. Gaur egunean ekarrita daude, egungo umeak obragaz

identifikatzeko. *Arratoitxo pinpirina* lanean, kontaktzen dugu umeek ere pairatzen dutela, nolabait, egungo materialismoa edo kontsumismoa, eta inportantea dela ondo zainduta egotea maite duzun jendeagaz. Bestalde, *Ahatetxo itsusia* obran, nolabait *bullying* egiten diote ahatetxoari; beraz, gaur-gaurko gaia da ere bai. Kontatzen dugu edertasuna barruan daukagun zerbait dela, eta ez dela hain garrantzitsua itxurari begiratzea. Obra biek musika asko daukate: kantuak, dantzak e.a. ○

Lehenengo HAPN gertuago

Erandioko lehen Hiri-Antolamendurako Plan Nagusiaren idazketa esleitu du Udalak



Udaletxean informazio-bulegoa ipiniko dute

Erandioko Hiri-Antolamendurako Plan Nagusiaren idazketa behin-behinean esleitu du Udalak; behin-betiko hitzarmena hil honetan sinatuko du eta, horrenbestez, 2014an onar dezakete bere aurrerapena.

Gaur egun, oraindik orain, 1990eko arau ordezkatzailen arabera urbanizatzen da herria. Zortzi urterako egin ziren, baina horiek dira gaur egun ere erabiltzen direnak; hori bai, dozenaka aldaketa egin diete urteotan guztiotan. Esatea 1995ean egin zela lehen saiakera HAPN osatzeko, baina azkenean ez zela garatu.

Etorkizuneko Planaren alor nagusiak herritarren artean ezagutzera emon eta eu-

ren iradokizunak jaso asmoz, bulego iraunkorra zabalduko dute laster udaletxean. Hainbat auzotan, barriz, bulego ibiltariak ipiniko dituzte, berbarako: Erandiogoikoan eta Astrabuduan. Gainera, gaiaz zuzenean galdetu gura diete herritarrei, merkatariei, auzo elkarteei, enpresa-taldee, eta elkarte sozial eta kulturalei, euren iritzia jasotzeko.

Hiri-Antolamendurako Plan Nagusiak dira udal-plangintzaren tresna nagusia: hirigintzako egitura-antolamendua ezartzen dute sailkapenaren eta kalifikazioaren bitartez, lurzoruen erabilera eta berauek garatzeko programa finkatuz. ○

MUSIKA ESKOLAKO ENTZUNALDIAK

Ikasturtea badoa aurrera eta Musika Eskolako ikasleek herritarren aurrean erakutsiko dute orain arte ikasitakoa, urtero legez, hainbat emanaldigaz: abenduaren 5ean, piano-entzunaldia izango da; hilaren 11n, haize-tresnen entzunaldia; abenduaren 13an, akordeoi-orkestraren kontzertua; eta hilaren 18, 19 eta 20an, Gabonetako kontzertua. Lehen hirurak 19:00etan hasiko dira; Gabonetako kontzertuak, barriz, 19:30ean. Danak izango dira Astrabuduko Josu Murueta kultur etxeko areto nagusian eta sartzeko gonbidapenak har daitezke musika eskolako idazkaritzan. Bestalde, hilaren 18an Erandiogoiko San Jose egoitza bisitatuko dute musikariek, ohiko kontzertua emoteko nagusien aurrean.

Info+: www.erandio.net

SEXPEAREMENTE, AZOKA ZAHARREAN

Sexpearemente antzetzuko du Madrilgo Sexpeare taldeak abenduaren 14an, Altzagako azoka zaharrean. Emanaldia 19:00etan hasiko da eta sarrera bakoitzak 4 euro balio du. Santiago Molerok eta Rulo Pardok antzetzten dute: Sexpeare antzerki taldeak 18 urte dauzka baina, murizketak direla-eta, metro koadro bateko taulan jardutera behartuta dago. Santi eta Rulo aktoreek, pertsonaia bihurtuta, taldearen bilakaera antzetzuko dute.

Info+: www.erandio.net

DIRU-LAGUNTZAK ENPRESA BARRIENTZAT

Enpresa barrientzako diru-laguntzen deialdia zabaldu du Udalak eta eskaerak aurkez daitezke, abenduaren 24ra arte, Erandioko Behargintzan. Laguntza jaso dezakeen ekintza zehatza da: enpresa eratzea eta abian ipintzea, enpresaren forma juridikoa edozein dela, banakako enpresaburuak, profesionalak, ondasun-erkidegoak eta sozietate zibilak barne.

Info+: enplegua@erandioko-udala.net



Aktualitatearen alde ezberdinak konbinatuko dizkizugu astero

ARGIA. Kalitatezko prentsa independentea

Jaso ezazu Euskal Herriko astekaria hilabetez **doan!**
sustapena@argia.com · 943 37 15 45



AIXERROTA BHI

• TEKNOLOGIKOA
BATXILERGOAK • NATUR ETA OSASUN ZIENTZIAK
• GIZA ETA GIZARTE ZIENTZIAK
DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA (DBH) B ETA D EREDUAK
ZEREGINAK IKASTEKO GELA (A ETA D EREDUAK)

INFORMAZIO GEHIAGO: WWW.AIXERROTABHI.NET / TF. 94 491 17 86



ENTSEGU LOKALA ESKURA GAZTETXEAN

Musika-taldea badaukazu eta entseatzeko lokal-bila bazabiltza, orain badaukazu lekua gaztetxean! Izan ere, musika-taldean asanblada sortu dute euren artean koordinatzeko, eta egin gura dituzten hobekuntzak edo proiektuak aurrera eroateko. Aste birik behin elkartzeko dira, domeketan eta 18:00etan. Edozein taldek parte har dezake ekimenean, baldintza bigaz: asanbladan parte hartzea eta bertan adostutako bizikidetzara-aruak betetzea. Daborduko bederatzia musika-taldek entseatzen dute bertan.

Info+: sopelakoga@gmail.com

MUSIKA-ESKOLAKO IKASLEEN ENTZUNALDIA

Musika-eskolako ikasleek kontzertua emongo dute abenduaren 18an, eguaztenean. Beraz, Gabon-giroan sartzen lagunduko digu entzunaldiak. Kurtzio kultur etxeko areto nagusian izango da eta arrastiko 19:00etan hasiko da. Piper egiteko aitzakiarik ez daukazu, izan ere, sarrera doako izango da.

Info+: www.sopelakoudala.org

UXUE ALBERDIREN LITERATUR SOLASALDIA

Euskal literaturaren barruan bidea zabaltzen ari dira emakumeak, Uxue Alberdi idazle gaztea dugu horren adibide. *Euli-giro* ipuin-sorta kaleratu du duela hilabete gitxi susa argitaletxeagaz, eta hari buruz jardungo da abenduaren 5ean, eguenean: Kurtzio kultur etxean izango da solasaldia, 19:00etan. *“Duruzagarriak, ezustekoak, misteriotsuak, apartak dira sorta honetako kontakizunak, beti lilura giroz jantziak”*. Elgoibartar kazetari eta bertsolariaren bigarren ipuin-liburua da, izan ere, 2007an argitaratu zuen *Aulki bat elurretan*. Gainera, 2009an kaleratu zuen lehen eleberria: *Aulki-jokoa*.

Info+: zubitegia.armiarma.com

Igogailua Larrabasterran Hil honetan ipiniko dute martxan; gainera, Sertutxa plaza barritu dute



Iberre kaletik anbulatoriora doa igogailua

Abendu erdialdean martxan ipiniko dute igogailua Larrabasterrako: Iberre kaletik anbulatoriora eta udal-gobernuak dioenez, estrategikoa da Larrabasterra eta Sopela erdigunea lotzeko: *“aldapa oso gogorra dago herriko zonalde bi hauen artean, eta igogailuak distantzia hori gutxituko du; gainera, guztiak beharrezkoa da mugikortasun arazoak dituzten pertsonentzat”*. Hain zuzen, auzokideek eskatu ei zuten igogailua ipintzeko. Erabilera doakoa da eta 225.840 euro kostatu da.

Horretaz gainera, hainbat obra egin

dituzte herrian. Besteak beste, umeentzako zabuak ipini edo barritu dituzte Arriaterako aparkalekuan, Gernika eta Jauregizar plazetan, edota Artza parkean.

Gainera, Sertutxa plaza guztiz barritu dute *“hainbat lekutan hondoratuta zegoelako eta arriskutsua zelako auzokideentzat”*. Zoladura aldatu, zintarriak zaharbarritu, saretoak aldatu, eta jesarlekuak eta argiteria aldatu dituzte. Gainera, herriarren *“mugikortasuna eta irisgarritasuna bermatzeko”* arripala bat eraiki, oztopo arkitektonikoak ezabatu eta eskubandak ipini dituzte eskaileretan. ○

Ekaitz Billalabeitia > Euskadiko motokross txapelduna

“Euskadiko txapela lortzea erronka izan da”

Euskadiko motokross txapeldun bihurtu da Ekaitz Billalabeitia sopeloztarra azaroan, MX1 kategorian. 2010ean Bizkaiko txapeldun izan zen eta 2012an Euskadiko txapeldunorde.

—MX1 kategorian zabilta, ezta?

—Bai, MX1 Elite kategorian leihatzen naiz. Kategoría motorrak berak markatzen du, bere ezaugarrien arabera (motorra eta zilindrada): MX1 edo MX2 izan daiteke. Horiez gain, ume, gazteen eta beteranoen kategoriak daude. Kirol gogorra da, egoera fisiko oso ona eta erresistentzia handia beharrezkoak dira. Motor gainean entrenatzea ez da nahikoa, ariketa fisikoa ere egin behar duzu. Aste-an zehar korrika egitera eta bizikletan mendian ibiltzera noa, asteburuetan motorrarekin zirkuituetara.

—Garestia da?

—Oso garestia. Motorra eta beharrezko materiala egoera onean mantentzea garestia da. Horrez gain, federatu egin behar duzu eta dagokion lizentzia ordaindu, eta lasterketetan izen-emateak ordaindu. Ez du ikusmin handirik pizten, eta ez dago laguntza edo babesle askorik Euskadin. Entrenatzeko zirkuituen egoera ere ez da ona. Dena den, Euskadin afizioa badago eta pilotu dezente dago lasterketetan. Umeak eta gaztetxoak ere atzetik datoz ziztu bizian!

—Zer baloratzen da txapelketan?

—Euskadiko txapelketan aurren 8 proba egon dira, lehena apirilean eta azkena azaroan. Zirkuitu itxietan egiten dira, lur edo hareazko zoruan, kurba eta salto ugariarekin. Proba bakoitzean bi lasterketa izaten dira eta puntuak banatzen dira bakoitzean lortutako postuaren arabera. Irabazleak 25 puntu lortzen du, bigarrenak 22, hirugarrenak 20 e.a. Puntuak gehituta ateratzen da txapelketako sailka-



Billalabeitia, lasterketa batean

pen orokorra. Txanda bakoitza 20 minutuko da. Denbora hori pasatuta 2 buelta gehiago eman behar zaizkio zirkuituari lasterketa amaitzeko. Baloratzen dira abiadura, lasterketak bukatzea eta erregulartasuna; garrantzitsua da arin ibiltzea postu ona lortzeko, baina akatsen bat izan eta

«Erresistentzia handia eta egoera fisiko ona behar dira: kirol gogorra da»

lasterketa amaitu gabe utziz gero, ez duzu punturik lortuko. Beraz, tentuz ibili behar da eta lasterketak amaitzen saiatu. Hobe da lasterketa guztiak amaitzea erregulartasuna mantenduz eta puntuak gehituz.

—Euskadiko txapela zer da zuretzat?

—Urte batzuk daramatzat leihatzen eta sari hau lehen aipatu erregulartasunaren isla da. Lan handia egin dut eta, nahiz eta orain arte Bizkaia zein Euskadi mailako txapelketetan lehen hiruren artean sarritan bukatu, Euskadiko txapeldun izatea erronka izan da. Afizio handia dut eta oso gustura nabil, baina sari hau lortzea zer edo zer gehiago bada. ○

DIDAK
hamilton
IDIOMAS

Ingelesa, Frantsesa eta Alemana

- Taldeak, enpresak eta partikularrak
 - Eskolaz kanpoko ekintzak
 - Maila guztiak
- Ingelesa 3 urteik aurrera
 - Talde txikiak
- Ingalaterran egonaldiak

Dr. Landa 6 eta Iberre 9 / 48600 Sopela.
Tf. 94 676 30 12
info@didakhamilton.com

**ANDER
DEVNA**
IKASTOLA

- Hezkuntza integrala urte 1etik 18ra artekoa
- Irakaskuntza eta hezkuntza
- Informazioa eta partaidetza
- Eleaniztasuna
- Esperientzia eta barrikuntza

Gatzarrine z.g. SOPELA
Tf. 94 676 02 66
Email: sopela@ikastola.net

OINUTSIK
KONTSULTA PODOLOGIKOA
Nahia Andrés Bilbao (nº col. 236)

Zubigane 4
48600 Sopelana
Tf. 94 404 74 20
CITA PREVIA
oinutsik@euskaltel.net



**OINAK DITUZU
ONGIZATEAREN
ZUTABE, OINEZ
EDONORA HEL
ZAITEZKE!!**

Cerca de la salida del metro (a 150 metros). En el mismo edificio de Correos, a la vuelta de Santiveri.

**Gosariak,
Pintxoak,
Giro eta musika onena
ONGI ETORRI!!**

Bentabxu 2 Tf. 94 676 03 28 SOPELA

EGUNKARIAK
prentsa eta aldizkariak

*gura izanez gero,
etxera eroango dizugu
egunkaria!!!*

Algortako etorbidea 78
Tf. 94 491 27 34

BOSGARREN EDUKIONTZIA HELDU DA

Daborduko martxan da Berangon bosgarren edukiontzia. Aurreko hil akabuan Berangoko auzokideei bosgarren kontainera erabiltzeko kit-a banatu zien Udalak. Era berean, edukiontziraren erabilera borondatezkoa izango da, eta erabili gura duten auzokideek aukera izango dute. Hala, Udalak kanpaina abiatu du berangoztarren zalantzak argitu eta bosgarren kontainera erabil dezaten. Guztira herrian 20 kontainer jarri dituzte, horietara, kozinatu ez diren barazkien eta fruituen hondakinak eta ogi zein opil hondarrak botako dira. Hondakin horiek jaso ondoren, konposta bihurtzeko birziklatzera eramango dira. Udalaren ustez, ekimena oso garrantzitsua da ingurumen-ikuspuntutik, hondarren ziklo naturala osatzen duelako; izan ere, behin tratatua landareen edo zuhaitzen ongarri bezala erabiliko ei da. Web-orrialdean kit-a eskuratzeko izena eman daiteke.

Info+: www.5contenedor.com

ABENDUAK 6, BIGARREN ESKUKO II. AZOKA


Aurton, barriro ere, Berangoko Udalak bigarren eskuko azoka antolatu du abenduaren 6an herriko frontoian. Bertan herritarrek bigarren eskuko produktuak salgai jartzeko aukera izango dute. Partaideek ezingo dituzte animaliak eta janaria moduko produktuak salgai jarri; bai, ostera erabiltzen ez duten etxeko edozein gauza. Esan legez, azoka frontoian izango da barikuan, goizeko 11:00etatik eguerdikiko 15:00 arte.

uk  
zure publizitatea hemen!

94 491 13 37 - publiuk@aldizkaria.biz

Fede Merino > argazkilaria

“Lanak helburu du: industrializazioari begira, historiaren oroimena eratzea”



Abenduaren 20an, 19:00etan Algortako Villamonte kultur etxean liburua aurkeztuko du

Fede Merino Berangon bizi den argazkilaria Bizkaian industrializazioak utzitako irudiak batu, eta liburu bat osatu du: *Altos Hornos de Vizcaya eta industrializazioa* (25 euroan salgai, hainbat liburudendetan eta Durangoko Azokan).

—Zeintzuk dira liburuaren edukiak?

—XIX. mende akabuan industrializazioak ekarritako irudiak agertzen dira liburuan. Besteak beste, meategietako lana ageri da, lan horren gordintasun, eta halaber, meatza ustiatzeak ekarri zuen siderurgiaren eta ontzigitza industriaren lorratzeak ere ageri dira argazkiotan. Horrez gainera, industria handi horiek sorrarazitako fabrika txikien lana ere azaltzen da. Beraz, liburuak arlo horien guztien irudiak erakusten dizkigu.

—Liburuko argazkiak Ezkerraldekoak bakarrik dira?

—Egia esan, Bilbo Handia delako ingurune osoko argazkiak ageri dira; Somorrostrotik Basauriraino Nerbioiren ezker aldean; eskumaldean, ostera, Uribe

Kostako irudiak ugari dira: Urdulizeko irudiak ageri dira, Erandiokoak, Astrabudukoak, Leioakoak, Romokoak, Berangokoak eta Sopelakoak. Izan ere, industrializazioan lanean dabilzan inguru horretako langileak liburuan ageri dira. Lan honetan agertzen diren leku zehatzak aipatzearen, Erandio aipa genezake, ontzi-industriak dauzkan enpresak.

«Zortzi hilabete egon gara lanean; jende askok parte hartu du lan honetan»

—Lana argazkigintzatik haratago doa...

—Bada, lan handia izan da; arlo askotan sartu behar izan dut; soziologian, etnografian, historian... Partaide askok lan egin dute liburu honetan, eta ni lan horren koordinatzailea izan naiz... Guztira, lana egiten 8 hil inguru eman ditut.

—Zein asmoz ageri duzu?

—Industrializazioan parte hartu duten guztiei omenaldia egitea, baita gure historiaren oroimena osatzea ere izan ditut helburu nagusiak. ○

Cesar Perez > idazlea

“Barrikak eta inguruek liluratu ninduten; horregatik, ageri da”



Trilogiaren azken eleberria *Consummatum est* 2014ko otsailean kaleratuko du

Valladolidekoa da jaiotzez Cesar Perez Gellida; hala ere, idatzitako trilogiaren liburuen eszenatoki nagusia liluratu zuten Uribe Kostako bazterrak dira: Barrika, Plentzia e.a. Horren arrazoiaren barri emon diezagun beragaz egon gara.

—Zer dela-eta Barrika zure liburuaren eszenatoki nagusia?

—Trilogian etengabe agertzen da bertan dagoelako eszenatoki nagusi bat; izan ere, Milagros jatetxe mexikarrean gauza asko gertatzen dira nire eleberrietan. Hala, trilogiaren lehenengo bi liburuen, *De memento mori* eta *Dies Irae* eleberrien gertakari nagusiak jatetxe horretan gertatzen dira. Orain dela bost urte Uribe Kostara etorri nintzen aurrenekoz, eta Barrikara joan, eta jatetxe horretan egon nintzen. Egia esan, lekuak erabat liluratu ninduen eta hor ondoan, Plentzian, hain zuzen, kokatu dut eleberriaren pertsonaia nagusi baten bizilekua.

—Zein da trilogian lantzen duzun gaia?

—Hiru eleberrietan hari-gidari bat dago.

Soziopata den protagonista, dokumentalista izan ez ezik, hiltzaile ere bada. Nahiz eta eleberri baltza delakotzat ezagutu, niri ez zait interesatzen irakurleak hiltzaile nor den deskubritzea, soziopata izateko arrazoiak deskubritzea baino. Beraz, arrazoi horiek deskubritzea da irakurlearen erronka, baita hiru eleberrien arteko hari-gidaria ere.

«Une honetan beste genero bat arakaten ari naiz; thrillerra»

—Zergatik jatetxe mexikarrean presentzia handia eleberrietan?

—Egia esan, lekuak liluratu ninduen; bertako dekorazioa, estiloa, janaria noski, eta arreta asko gustatu zitzaizkidan. Eta eleberriaren eszenatoki hori jartzea erabaki nuen.

—Trilogia amaitu eta gero eleberri baltzaren alorrean jarraitzeko asmoa duzu?

—Ez, une honetan beste genero batera jauzi egin dut; thriller bat idazten ari naiz-eta. Hortaz, esku artean badauzkat beste proiektu batzuk. ○

OSABIDE HORTZ KLINIKA

Arantza Etxebarria

- Odontologia orokorra
- Ortodontzia
- Periodontzia
- PADI

Bidebarri 27, behea eskuina
ALGORTA
94 430 76 96

UKnatura

ZITEK PORTUGALSTE
ESCUOLA SUPERIOR DE NÁUTICA PORTUGALSTE
MARIA DIAZ DE HARO, 68
48960 PORTUGALSTE (BIELKALA)

2013-2014 KURTSOA

- * BIOERAKUNTZA TALDEAK
- * ARTISAU YABOIAK ETA KOSMETIKOAK
- * BIOERAKUNTZAKO PROIEKTUAK
- * ENERJIA BERRIZLAGARRIAK

www.uknatura.org eta 94705471 / 646742241



Harritzeko moduko kalitatea!

- Garbiketa orokorrak
- Mantentze garbiketa
- Garbiketa industriala
- Itsasontzi garbiketa
- Ospital garbiketa
- Elikagai Industriak igienizatzea, garbitzea eta desinfektatzea
- Legionellaren kontrako tratamenduak
- Airestatze tutuak, aire girotuak eta hodi industrialk garbitzea
- Lan osogarrria

Andres Isasi 11, Behe ezkerria (Bilbo)
Tf. 94 470 06 69 e-posta: bilbao@limpiezavillar.com

zaindu
Esku Terapia Zentrua
Osteopatia · fisioterapia

Ane Nafarrate Martin
Doctor Ianda 4, Sopela
Telf.: 946026779

IZENADUBA BASOA EZAGUTZEKO URTEERA

Gabonak heltzear dira, eta horregaz batera Olenzero urtero dagokion protagonismo bera hartzen doa. Hala, Uribe Kostako Mankomunitateko Euskara Zerbitzuak Olenzeroaren etxera, Izenaduba basora urteera antolatuta du abenduaren 16an, astelehenean, arrastiko 17:30ean. Interesatuak Plentziako Goñi Portalean izena emon beharko dute. Adinez txikikoek gurasoak edota arduradun batez joan beharko dute, urteeraren prezioa 8 eurokoa izango da, eta izen-emotean bertan ordaindu beharko da. Urteeran joateko pertsona-kopurua 35 izango da; beraz, hortxe aukera Olenzeroaren etxera ezagutu eta etxea bera inguratzen duen Izenaduba basoan murgiltzeko!

GORLIZEN ANIMALIAK BATU ETA ZAINTEKO TASA

Udalak animalien kontrolerako ezarritako tasa onartu du; neurri barriak helburu dauka egoera arautzea animaliak galdu edota ihes egiten dutenean. Hala, biltzearen edo txakurtegiara eramateko kostua arautzen du tasak, baita bestelako lanen kostua ere: egonaldia, txipa kokatzea, bizkarroiak kentzea edo animalia sakrifikatzea. Neurri horiek guztiak Udalak eskaintzen duen zerbitzua arautu nahi izan du; izan ere, iaztik Mankomunitatea ez da horretaz arduratzen. Horrenbestez, esan legez, urtariletik aurrera, jabeek euren animaliak galtzen badituzte, animaliek jasotzen dituzten zainketak direla-eta, Gorlizko Udalak tasak kobratuko dizkie jabeei.

aldai

TAPIZTEGIA
DEKORAZIOA
ERAKUSKETA
ETA TAILERRAK

Basagoiti etorbidea 32
Tf. 94 460 90 31
48990 ALGORTA

Gorliz

Gorliz, momentuz, Euskararen Erabilera Plan barik lotu da



Azaroko udalbatzan ez zuten onartu

Euskararen Erabilerearen Plana bertan behera geratu da Gorlizko udalerrian, alderdi politikoen desadostasunak direla eta. Izan ere, azaroan egondako udalbatzan Euskararen Erabilera Planak ez zuen aurrera egin Independenteen eta EH Bilduren aurkako bozkak medio.

86/1997 dekretuak euskararen erabilerearen normalizazioa arautzen du, horren arabera udalek euren plan espezifikoak sortu eta aurrera eroaten dituzte. Hori dela eta, gobernu-taldeak (EAJ) aurreko plan estrategikoa luzatzea proposatu zuen, 2017ra arte. Ostera, momentuz, gobernu-taldeak aurkeztutako Planak ez du lortu gainerako talde politikoen oniritzia.

Euskararen Erabilerearen Planak helburu dauka publikoari begirako arreta-eremuan euskararen erabilera sustatzea. Gobernu-taldearen esanetan, Plan barria osatzeko batzordea sortuko litzateke, politikari eta sindikatuak erabaki adostu-

ak hartzeko. Gobernu-taldearen arabera Planari dagozkion erabakiak guztien artean hartuko lirateke. Hala ere, badira bestelako iritziak, Gorlizko EH Bildu taldearena, esaterako: *“Ez gaude prest enpresa batek egindako Plana onartzeko, aurretik udal-langileak hitz egin gabe,*

“Plan estrategikoak helburu dauka publikoaren arreta-eremuan euskararen erabilera sustatzea”

eta guztion artean Plana osatu barik. Azken finean, enpresa batek oso plan polita egin dezake, baina plan horretan ageri dena ez bada guztion artean erabaki, ez du ezertarako balio”. Azaldu dutenez, eurek Plana osatzeko egiteko horri ekin diote: *“Udal-langileekin batzen hasi gara, euskararen erabilera nola sustatu dezakegun erabakitzeko”.* Beraz, momentuz, Euskararen Erabilera Planaren onartzea urrun ei dago, indarrean jartzetik urrun. ○

Abe. 3 - Abe. 22

Zuon ekitaldiak iragartzeko • Posta elektronikoa: agendauk@aldizkaria.biz • Tf. 944 911 337

ERAKUSKETAK

GORLIZ

► **Euskal Herriko mapak.** Abenduaren 20ra arte. Sertutxenean.

GETXO

► **ArgiHizkiak.** Abenduaren 31ra arte. Algortako kultur etxean.

LEIOA

► **Gregerien abezea.** Abenduaren 12tik urtarrilaren 26ra. Kultur Leioan.

MUSIKA

GETXO

► **Jazz Ciudad.** Abenduak 12, 20:00etan. Areetako Aremuna kafetegian. Doan.

► **Urban.** Abenduak 19, 20:00etan. Algortako Jolasurre tabernan.

► **Travellin' Brothers Little Band.** Abenduak 21, 20:00etan. Andres Isasi musika-eskolan. 10 euro.

SOPELA

► **Musika-eskolako ikasleak.** Abenduak 18, 19:00etan. Kurtzion.

LEIOA

► **Quinteto Lisboa.** Abenduak 20, 21:00etan. Kultur Leioan. 18 euro.

BERANGO

► **Simon Otxandategi dantza taldea.** Abenduak 22, 12:00etan. Berango Antzokian.

ANTZERKIA

GORLIZ

► **Ikusentzunezko ipuin kontaketa.** Abenduaren 7an, 18:30ean. Ikastetxean.

Jone Uriak irabazi du Balendin Enbeita saria

► **Bertsolaritza**
Balendin Enbeita sariak, ALBE-galan

Abenduaren 22an izango da Algortako bertsolari-eskolaren gala, domekan, eta bertan banatuko dituzte Balendin Enbeita bertso-paper lehiaketaren sariak. Nagusien mailan lehenengo saria irabazi du Jone Uriak *Distantziak* bertsoakaz, eta bigarren lotu da Mikel Arrillaga *Bakarrik hobeto* bertso-sortagaz. Gazteen mailan, barriz, lehenengo saria eskuratu du Aitor Servier *Prestatzen* bertsoakaz, eta bigarren saria Paule Loizagak *Ametsak* sortagaz. Galan, gainera, argazki-emanaldia izango da, bertso-eskolako gazteek ikuskizuna egingo dute eta gainontzeko bertsolariak batera bertso-saioa egingo dute. Amaitzean, mokadutxoak jateko aukera egongo da.

• **Non:** Algortako kultur etxean • **Noiz:** Abenduaren 22an, 18:00etan

GETXO

► **Xancore.** Abenduak 7, 19:00etan. Andres Isasi musika-eskolan. 3 euro.

BERANGO

► **Hansel eta Gretel.** Abenduak 8, 18:00etan. Berango Antzokian.

SOPELA

► **Vamos a contar mentiras toda la vida.** Abenduak 13, 20:30. Kurtzion 3€.

► **Mister Olenzero.** Abenduak 20, 17:00etan eta 19:00etan. Kurtzio kultur etxean. Doan.

ERANDIO

► **La ultima oportunidad.** Abenduak 7, 20:00etan. Altzagako azoka zaharrean. 4 euro.

► **Sexpereamente.** Abenduak 14, 20:00etan. Altzagako azoka zaharrean. 4 euro.

LEIOA

► **Tempestad.** Abenduak 13, 20:30ean. Kultur Leioan. 15 euro.

► **Leioako Gazte Orkestra eta musika-banda.** Abenduak 21, 20:00etan. Kultur Leioan. 4 euro.

BARRIKA

► **3, 2... zast!** Egizu jolas! Abenduak 22, 18:00etan. Ander Deuna aretoan.

ZINEMA

GETXO

► **Inch'allah.** Abenduak 13, 21:00etan. Areetako Andres Isasi musika-eskolan. 2,90 euro.

► **Los Balunis en la aventura del fin del mundo.** Abenduak 15, 17:00etan. Areetako Andres Isasi musika-eskolan. 2,10 euro.

SOPELA

► **Amor.** Abenduak 12, 18:00etan. Kurtzio kultur etxean. Gonbidapenagaz.

► **Olenzero eta iratxoaren jauntxo.** Abenduak 15, 18:00etan. Kurtzio kultur etxean. Doan.

BARRIKA

► **Malutatxo.** Abenduak 13, 18:00etan. Ander Deuna aretoan.

ERANDIO

► **Turbo.** Abenduak 21, 17:00etan. Astrabuduko kultur etxean. 2 euro.

BESTEAK

SOPELA

► **Hitzaldia: Uxue Alberdi.** Abenduak 5, 19:00etan. Kurtzio kultur etxean.

GORLIZ

► **Txangoa Gandia auzoko baserriak ezagutzeko.** Abenduak 14, 11:00etan. Elizako plazatik.

GETXO

► **Liburu-aurkezpena: El secreto mejor guardado.** Abenduak 16, 20:15ean. Algortako kultur etxean.



ADITUAK GARA PINTXO ETA
BOKATA BEROETAN!!!!

BASAGOITI ETORBIDEA 51
ALGORTA

[albuma]



Harri zaharretatik...

Bizia emoten diote plentziarrek ondare zaharrari; alde zaharreko eraikin dotoreek gordetzen dute auzoaren handitasuna eta lasaitasuna; harriz harri eraikitako herria. Erdi Arora garamatza haren kaleetan galtzen garenean. Horma horien artean dagoen aberastasuna gal ez dadin, hain zuzen, ondarea zaintzeko eskatu dute herritarrek. Eta berbalagunek ere bisitatu barri dute auzoa, haren sekretuak aurkitzeko esperantzazagaz...

Argazkiak: **Asier Mentxaka**





Plentziako

Isuskitza

Butroe ibaian gora, herrigunetik kilometro bi ingurura, ibaiak egiten duen erreboltan, meandroa eta ibai-lurmena zabaltzen diren horretan, hortxe Isuskitza; azken bolada luzean Plentziako Abanikoa izenez bataitua.

Argazkiari ezin urte ez garai zehatzik ezarri, baina euria goian-behean, barra-barra geroztik; eta gizakiak erruz eraiki du bertan. Lauzpabost baserri baino ez dira ageri argazkian, ortuz eta soroz josia gainazala... Gaur egun txaletek eta bideek ordezkaten dituzte, Plentziako Abanikoak Isuskitza legez.

DAVID CRESTELO "KRES"-EK UTZITAKO ARGAZKIA

[berbetan]

Inoiz jardun ez badu ere, Zuzenbidea ikasi zuen Deustuko Unibertsitatean Jon Urrazak (Algorta, 1971). Han zebilela hasi zen antzerki ikastaro batean parte hartzen, eta gerora Getxoko Antzerki Eskolan ikasi zuen Antzerkigintza. *Bob? Nor da Bob?* (2005) antzezlanaren taularatutako lehenengo, eta orain urte bi justu, 2011ko abenduaren 1ean, Gorkizaren aurkeztutako *Morrison eta Gartzia*. Antzerki-lan horretako zuzendari, gidoidile eta aktore da algortarra; enplegu-aniztasuna sufritzen duela badirudi ere, bestelakoa da sufrikarioa, irribarrea galtzeko prest ez badago ere! *Morrison eta Gartzia* antzerki-lanetik film luzea egin zuten, munduko hainbat zinemaldietan eskaini dutena, berton, ostera, oholtzeen deien zain egon behar...

Jon Urraza

Bertotik mundura... hemen lantzeko!

Testua: **I. Sagarmínaga** / Argazkia: **Asier Mentxaka**

—“Nik akotxe izan gura dut; antzerkigintzan jardun”, zelan ohartu zinen?

—Hasieran sekretua edo izango zen! (kar, kar) Beno, txikitatik pilo bat gustatu izan zinema; eta umetan gustuko nituen pelikuletako protagonistek zeuzkaten ogibideetan jardun nahi nuen: 10-11 urterekin Indiana Jones ikusi nuen eta arkeologo izan nahi nuen, gero abokatuen pelikulak gustuko nituen Zuzenbidea ikasi nuen... Ondoren konturatu nintzen gustuko nuena ez zela pelikuletan ikusten nituen ogibide horiek, baizik eta ogibide horiek antzeztzen zituztenen ogibidea! (kar, kar). Antzerki-eskolan nahiko nagusi sartu nintzen, 24 urte ingururekin, baina aurretik ere eginda nuen tailerren bat. Ez da egun batetik bestera hartzen den erabaki bat; muturra sartzen hasten zara... Hasieran beti pentsatzen duzu: “*etorriko, helduko da aukeraren bat...*”. Baina, gero, ikusten duzu buru-belarri jarri behar duzula horretan eta aukerak zuk zeuk sortu! Egunez egun ohartzeko zaren eta onartzen duzun kontua da.

—*Morrison eta Gartzia* baino lehenago, *Bob? Nor da Bob?* lanagaz ibili zinen.

—Jarraitzen dugu orain urte bi plazaratutako *Morrison eta Gartzia* lana taularatzeko, hil honetan Iruñean eta Aramaion ditugu emanaldiak; gutxienez udara arte jarraituko dugu. Baina, zaila da! Lan honen 20 emanaldiko muga gainditzea asko kosta izan zaigu; oster, *Bob? Nor da Bob?* lanarekin 50 inguru egin genituen hiru urtetan, ia-ia urte bitan, gehienak hasierako bietan egin genituelako. Eta nire iritziz *Morrison eta Gartzia* askoz lanuagoa da baina... Berridazketa piloa izan ditu, gidoiagatik sariak jaso ditu, pelikula

“Indiana Jones ikusi eta arkeologo izan nahi; abokatu-filmak gustuko eta Zuzenbidea ikasi; konturatu arte...”

ere egin dugu pentsatuz horrek antzelenari bultzada eman diezaiokelakoan, egiten dugun bakoitzean ederto funtzionatzen du, jendeari gustatzen zaio, salmenta-erakundeak askoz ere denbora gehiago eskaintzen ari natzaio eta halere... *Bob? Nor da Bob?*-en garaian esfortzu bariarik saltzen genuen, eta hau aldiz, piloa

kostatzen ari zaigu. Frustagarria da ondo funtzionatzen duen lana dela jakin eta horrenbeste kostatzea funtzio bat lortzea! 2005ekoarekin alderatuz, funtzioen erdia edo egiten ari gara.

—**Arrazoi-aitzakia: demontreko krisia?!**
—Krisialdiagatik dela esaten dugu beti; ez dakit ba... Badirudi pastela txikiagoa dela orain, eta gosez talde edo aktore gehiago gabiltzala! Orain, gurea moduko, formatu txikiko, antzeki gehiago dago... Arrazoiak zein den ez dakit. Esan dezakegu: obrak ez du harrera ona izan, jendea-

ri ez zaio gustatu... Baina hori ez da gure kasua! Orduan, zer? Beste arrazoiaren bat izango da: ez gara telebistan agertzen?!

—**Aldi berean gidoilari, zuzendari eta aktore izateak hamaika buruhauste?**

—Estreinatutako antzezlanetan prozesua antzekoa izan da: lehenengo, ideiak idatzi... Egia da, *Morrison eta Gartzia-*



rekin, aurrekoekin alderatuta, berridazketa gehiago egin ditudala, testua askoz landuago dago. Café Bar Bilbao sariketara aurkeztu nuen gidoiaren bertsioa (saria jaso zuen) handik urte bira estreinatu genuen, eta urte bi haietan asko landu nuen, gero genuen... Hasieran Morrisson gizonetzkoa zen, gero Leire Olan sartu eta emakumezko bihurtu nuen, gainera ikusi nuen ideia hobea zela... Beste berridazketa bat... Ideia barriak sortu ziren; gero, Leire rekin entseatzeko, berak ere bere pertsonaiaren gaineko proposamen barriak egin zituen... Sormena presente zegoen entsegetan, entsegu kritikoak ziren, eta horiekin testua ere aberastu egin zen... Beste berridazketa bat... Funtzioaren arabera ere aldaketaren bat gerta liteke... Pelikula egiteko ere aldaketaren bat... Orduan, gehien berridatzi dudana obra da hau, eta hori horerako nabaritzen dela uste dut. Gidoigile on batek ondo berridazten jakin behar duela irakurri nion behin *Un profeta (Un prophète)* filmako Iparraldekoa den Thomas Bidegain gidoilariari. Eta bat nator. Gero, zuzentzea: Leirerekin elkartzen nintzen, pertsonaia garatzeko proposamen batzuk eramaten nituen eta inprobisazioak, debateak, obrako gatazkak aztertu, irizietan sakondu e.a. egiten genuen; gero, eszena prestatu, montatu eta estreinatu!

—**Estrenalditik urte batera, lana oholtzaratzeko jarraitzeaz gainera, zinemara eroan zenuten: *Morrison eta Gartzia* pelikula! Iazko Durangoko Azokan aurkeztu zenuena. Zelan sortu zen aukera?**

—Aiert Goenagarekin batera zuzendu dut filma. Orduan, bera zen Durangoko Azokako zuzendaria eta, egia esan, berak proposatu zidan filma egitea. Berak aurreko urtean Durangon ikusi zuen antzezlan, eta ikus-entzunezko lanak aurkezteko gunea zabaldu nahi zuten... Pelikula bihurtzea produkzio aldetik nahiko erraza izan zitekeela iritzi zion... Proposatu zidan, baiezkoa eman nion, lagun baten etxea lortu genuen, beste lagun baten taberna, eta 5 egunetan grabatu genuen! Leirerekin hila-

bete osoak eman genituen entseatzeko, ondo landuta edukitzeko, ahalik eta arinen grabatzeko... Orain Ekuadorrera goaz!

—**Euskal film luze independentea; lehenengoa 3D-an. Aurrekonturik ez?**

—Independentea, azken finean, ez duela inolako dirurik edo babesik jaso. Leire Olan, Aiert Goenaga, Arkaitz Arza argazki-zuzendaria eta laurok batu ginen,

“Gerora, ikusten duzu buru-belarri jarri behar duzula horretan eta aukerak zuk zeuk sortu!”

paper txikitxo baterako Olatz Pagaldy ere bai. Horien artean grabatu genuen, eta orain zinamaldietatik mugitzen ari gara. Aurrekonturik?! Geure denbora eta gure lana; ekipoa lortu, eta postprodukziarako... Nire ustez hor daude gabezia handiak, oso garrantzitsua da nire ustez alde hori, soinua egokitze eta... Eta ez genuen dirurik; dirua jarri behar izan genuen gaztelerazko azpidatziak jartzeko, eta hori izan da ordaindu dugun kontu bakarra. Eta euskarazko 3D-ko lehenengoarena, azken finean, 3D-ko kamera erabili genuelako izan zen, baina 2D-ra pasa dugu, ez zuelako zentzu handirik: ez pelikulan kontatzen denagatik, ezta proiektatzeko orduan dauden arazoengatik ere (berturkekoak, proiektore berezia e.a.). Beraz, definizio altuan eta 2D-n dago, hala proi-

“Frustagarria da ondo funtzionatzen duen lana dela jakin eta horrenbeste kostatzea funtzio bat lortzea!”

ektatu genuen Zinegoak-en, eta orain Andaluziako eta Ekuadorreko zinemaldietan.

—**Pelikula ere bidea egiten dabil, beraz.**

—Durangoko Azokan aurkeztu genuen ia; gero, nahiz eta oinarritzko gaia Morrison eta bere lagun Gartziaaren arteko harreman-gatazkak izan, Morrison lesbiana denez eta bere bikote-harremanak ere

ikusten direnez, LGBT gaiak jorratzen dituzten zinemaldietan ere aurkez genezakeela pentsatu genuen. Orain urte batzuk Zinegoak-eko epamahaikide izan nintzenez, eurei proposatu nien, eta euskaraz ere bazenez, ondo hartu eta sail ofizialean sartu zuten; hor egonda, LGBT-ko beste zinemaldi batzuetatik filma bidaltzeko eskariak jaso genituen... Gero, sarean ere bila-

tzen hasi nintzen, ondorioz, Ekuadorreko erantzuna jaso dugu. Ekuadorreko El lugar sin limites zinemaldiko sail ofizialean sartu da, lehiaketan; eta Andaluziako Andalesgay-n ere bai. Jatorrizko bertsioan emango dute, euskaraz, gaztelerazko azpidatziekin. Donostiako Zinemaldian ere izan ginen, Kortxoenea gaztetxean antolatzen duten zinemaldi alternatiboan. Itxaropena dut kazetariren bat kritikaren bat egitea, eta promozionatzeko baliogarri izatea! Pelikula Ekuadorren-eta egon izana Euskal Herrian antzezlan egiteko bultzada izango zela uste nuen, ikusteke dago!

—**Eta pelikula hemendik ikusteko aukerarik izango dugu?**

—Momentuz ez; zinemaldietara bakarrik bidali dut... Euskal Herrian nahiago nuke antzezlan eskaini, hori mugitzen ari naiz.

—**Komedia-dramaren esparruan gustura sentitzen zara. Buruan zerbait barririk?**

—Horretan gustura sentitzen naiz, bai! Gustuko dudana interpretazio mota, bai lan egiteko bai lana-sortzean, oso naturalista da. Saiatzen gara naturalismo horretatik, bai elkarrizketetan, bai kontatzen dugun istorioan... komedia eta drama oso

ondo uztartzen dira; bizitzan ere uztartzen direlako! Esango nuke antzeleanak komedia puntu gehiago daukala, publiko aurrean ematen zaion tonuagatik komediarantzago doala; oster, pelikulan, lehen planoek, ikus-entzunezkoak eskatzen dizuten benetakotasun horrek eta, ia inkonstienteki, komedia puntua apur bat jaistea eragin zuen. Baina, azkenean, pelikulan ikusten

“Ekuadorren profeta izan ostean, bertan profetago izaten jarraitu nahi dugu, antzezlan honek merezi du-eta”

dena eta antzerkia berdina dira; ez genuen asko moldatu, ez genuen izan denbora askorik ere... Orain, atzera begira, eszena batzuk moldatu eta eszenatokiak aldatu behar genituela pentsatzen dut; ez nuke esango antzerki grabatua denik, baina an-

tzerki-kutsu larregi daukala esan dezakegu. Ilusio handia egin dit munduaren beste puntatik zinemaldi bateko hautatzaileek geure film luzea hautatu izana zinemaldiko sail ofizialean leihatzeke. Filma oso xumea da, aurrekonturik gabekoa eta gainera euskaraz; antzezlanak dituen zutabe berdinetan oinarritzen da: istorio interesgarri bat, pertsonai originalak, dialogo bi-

ziai eta dibertigarriak eta aktore lan sinesgarriak, eta horrexegatik aukeratu dute Ekuadorren, eta horrexegatik jasotzen ditugu antzezlan ikustera hurbiltzen diren euskal ikusleen erantzun eta "feedback" bikainak; horregatik geure apustua antzez-

lan honen alde, funtzionatzen duelako bai Ekuadorren, baita Euskal Herrian ere... Orain Ekuadorren profeta izan ostean, Euskal Herrian profetagoak izaten jarraitu nahiko genuke, *Morrison eta Gartzia* antzezlanak merezi du-eta.

Bestalde, berri bat idazten hasteko asmoa badut, baina oraindik buruan baino ez daukat proiektua, ez da beste ezer. Aktore birekin, formatu txikikoa... Azkenean, gaur egun, zaila da... Aktore askoko obra bada, prezioa igo behar duzu, eta horretatik bizi behar baduzu... Ni errealista izaten saiatzen naiz; badakit non nagoen eta nor naizen; formatu txikia oso ondo kontrolatzen dut, errazagoa da zuzendu eta barruan egoteko, eta herriz herri ibiltzeko aukera ematen dit. Inbertsio handia egiten baduzu, aktore pilo sartzen badituzu, eta gero bost bolu bakarrik lortzen badituzu... Oso gogorra da! ○

Euskal teatroa, bizi, bizi!

—**Euskal antzerkiaren egoeraz emon dituzu zertzelada batzuk; badira gurean lan bila atzerrira joandako asko ere.**


—Badira konpainia batzuk funtzio nahikotxo dituztenak, baina horiei ere entzuten diezu orain dela bost urte funtzio gehiago zituztela. Egoera, orokorrean, txarra da; murrizketak daude, ez dago dirurik, jendeak ere ez dauka dirurik aisialdian gastatzeko, langabezia ikaragarria... Gure profesioan beti langabezia handia egon da, bada imajinatu orain! Madrilen ere bardin-bardin daude, Max Sariatzen izan nintzean, hango aktoreekin hitz egitean: ez da pelikularik egiten, telesail gutxi egiten dira, Madrilgo teatroetan antzeztan dabilen aktoreak telebistan ezagunak direnak dira, telesailetan aktore ezagunak daude lehen halakoak egitea “okurridu bez” egiten ez zitzaizaienak... Lehen formatu txikiko, umorezko, gurea lako euskarazko lanik ez ziren hainbeste egiten Euskal Herrian, eta lehen zortzi

aktoreko konpainia zeukanak orain monologoak ateratzen ditu... Sasoi hauetan, lehen Euskararen Egunaren harira beti funtzio pilo izaten genituen, garairik onena zen euskarazko antzezlanak eskaintzeko; aurrean, bat ere ez! Konpetentzia berdina dago, baina, nik uste, merkatu murriztu dela. Lehen geudenok gehiago sufritzen dugu! Halere, aktore bati elkarrizketa egitean, ematen du kexatzen baino ez dakiela! (kar, kar) Eta ez nuke inpresio hori eman nahi! Baina, honetatik zelan irten? Ez dakit; lan eginez eta zeure esparrua bilatu. Oster, ematen du komunikabideetan egoteko egunero zerbait estreinatu behar duzula, etengabe estreinatzen ibili behar duzula... Horrek, nire ustean, kalitatearen kontra egiten du, gutxi landutako lanak izan daitezkeelako, horiek prestatzen denbora eskaintzeko dirurik ere ez dagoenez... Eta guk orain urte bi estreinatutako obra dugu... Baina Ekuadorretik gonbidatu gaituzte! Eta, ha-

lere, nahiz eta mezu pilo bidali, zuek zaretu deitu nauen komunikabide bakarra... Ez denez “estrenoa”, ez garez ezendunak... Muturra sartzea zaila da; nahiz eta urte pilo daramatzadan, ematen du beti hasten zabilzala... Egia esan, gogorra da. Nik antzerki-eskolak ere ematen ditut, aurrean eskola gutxiago ditut... Hala, mikrofonoa aurrean ipini eta kexatu eta kexatu! Ekuadorrekoarekin gelditzen naiz; diru barik egindako filma da, aktore bi eta istorio bat, hori da eurek balioetsi dutena. Eta horixe da antzerkiak daukana. Han Ekuadorren horregatik aukera badute, antzezlanean berdina eskaintzen bada, jarraitu behar dut buru-belarri hau antzeztan saiatzen! Ez dut amore emango, eta berri bat arrapaladan estreinatu, bisitatzeko Euskal Herriko herri pilo lotzen zaizkigunean! Ekuadorreko bezalako gertaerak ilusioa pizten dit berriro! Nahiz eta aurrekoekin alderatuta azken urte biok oso gogorrak izan!



BARAKALDO 1898. "EL CARMEN" FABRIKA. Jatorria: MIGUEL ANGEL MARTINEZ VITORES




MEHATZARIAK 1900. Jatorria: MUSKIZKO UDALA


Industrializazio sutsua

Aspaldi berangoztartutako Fede Merino (Reinosa, Kantabria, 1943) argazkilariak *Altos Hornos de Vizcaya eta Industrializazioa* argazki-bilduma osatu du. Liburuan irakur daitekeenez, “mendiak zintzilik altxatu zituzten eta denboraren patua aldatu zuten titanen historia da hau...”. Labe garaietako langileen, lanen, makinen eta lanbidearen edo oro har, industrilizazioak ekarri, eragin eta utzitako hainbat argazki UK-ko irakurleakaz partekatu gura izan ditu Merinok; bere berbak ere jasotzen ditu UK (22 orri.) honek.


Argazkiak: ***Altos Hornos de Vizcaya eta Industrializazioa*** bildumatik (Fede Merino, 2013)




BARAKALDO 1908. LABE GARAIAK I ETA II. Jatorria: MIGUEL ANGEL MARTINEZ VITORES



PORTUGALETE. CHÁVARRI




BARAKALDO 1908. WALKER NASA ETA GARABIAK



URETAMENDI, ERREKALDE 1958. Jatorria: HARTU-EMANAK



"MARI ANGELES" 2A LABE GARAIA



KONTROL-POSTUKO BEIRATETIK



2A LABE GARAIA. ZULATUTA



ESKARPADOREA PLANTXOEN AKATSAK KENTZEN

Kosta Legea > Kosta ahala kosta

Kostaldea babestea ezbaian: interes ekonomikoa versus balio naturala

Aurten, maiatzaren 29an kostalderako lege barria indarrean jarri zuen Espainiako Gobernuak; horrek 1988ko Kosta Legearen moldaketa, aldaketa, ekarri du. Zenbait talde ekologista, berbarako Greenpeace, lege horren aurka azaldu da, txosten osatua aurkeztuz.



Kosta Lege barria indarrean da

Kostaldea babestea izan da urte askoan zenbait talde ekologistaren xede nagusia; halere, nahiz eta Espainiako Gobernuak 1988tik Kosta Legea indarrean izan, asko dira urteotan kostaldea kaltetu duten ekintzak: zenbait enpresa, agintari zein eraikitzailek kostaldearen itxura aldatu dute; sarri, Legearen esanak baztertuz, interes ekonomiko zein pertsonalen mesedetan. Horren harira eta, bide batez aurtengo Kosta Lege barriari aurre eginez,

Greenpeace mundu mailako talde ekologistak txostena argitaratu du: Lege barriak interes pribatuen alde egiten duela, eta itsaso-lurraren jabetza publikoa baztertu

egiten duela adierazten du. Halaber, kostaldetik hurbil eraikitzearen arriskuen berri ere ematen du. Txosten horretan talde

Txostenak kostaldean eraikitzearen arriskuak azaltzen ditu

ekologistak argitan ematen ditu, besteak beste, gizakiaren esku-hartzearen ondorioz espainiar kostako hondartzetan egondako aldaketak; eta euskal kostaldeko datuak ere eskaintzen ditu. Are gehiago, klima aldaketak etorkizunean kostako paisaian eragin ditzakeen ondorioak ere azaltzen ditu. Espainiako datu ugari jaso dituzte, eta euskal kostaldearenak ere eskaintzen ditu: zoritxarrez, gure eskualdeko kostaldeak presentzia nabarmena du.



Greenpeaceko txostean Sopela gutxien urbanizatutako udalerrien artean da, Barrikagaz batera

Bizkaiko kostaldea

Euskal kostaldearen datuen artean, Bizkaiko kostak presentzia nabarmena dauka; hala, Zierbena aldaketa eta suntsitze maila handiena izan duten estatuko lehenengo hamar herrien artean azaltzen da; txostenean: "Muskiz eta Zierbena artean dagoen Petronorreko findegia eraikitzearen

ondorioz, balio handiko padurak ordezkatu dira, eta kostaldeko lehenengo marra-eremua findegirako eta jarduera logistikoetarako erabili dute. Findegi horrek Rodriguez-Zapatero presidentearen baimena jaso zuen, kostaldea inbaditzea baimendu zen". Horrez gainera, La Arena hondartzaren suntsitzeaz ere badihardu txostenak: "Draga-

txeen ondorioz, La Arena hondartza suntsitzen jarraitzen dute, eta higiezin-burbuilaren ondorioz %1,17 handitu zen azalera artifiziala". Gaur egun, kostako lehenengo 500 metroko marra-eremuaren %61 urbanizatuta ei dago.

Uribe Kosta, zer?

Txosten horretan ageri dira eskualdeko datuok ere: Barrikak 1987 eta 2005 bitartean okupazioan %934 gorakada izan ei zuen, Hegoaldeko euskal kostako goraka-

Plentzia azalera handiena (%97) hartuta daukaten herrien artean dago

da handiena. Plentzia, ostera, azalera handiena inbadituta (%97) daukaten herrien artean zerrendatu du Greenpeacek. Getxo ere badago okupazioa handitu duten herrien artean, %41 gora egin duela adierazten du txostenak; azalera gehien okupatuta daukaten herrien artean ere ageri da, datuon arabera, %57 du okupatuta.

Aitzitik, gutxien urbanizatutako udalerrien artean Barrika eta Sopela aipatzen ditu txostenak. ○

Barrikabaso afera > Kosta Legearen mugetatik kanpo

Eremu ez-urbanizagarri eta babestua izendatzeko bidean; desadostasunak nagusi 16 urte eta gero

Kosta Legetik kanpo kokatu behar dugu Barrikabasoko etxeen kasua; izan ere, momentuz bada ere, Lege barriak, aurrekoak bezala, ez du inolako eraginik izango Barrikabasoko inguruan. Hala ere, Barrikako auzo horren gaiari heltzea ezinbestekoa da; adostasunera heltzetik urrun, urteetako auziak, babestutako eremua urbanizatu izanak, mahai gainean jarraitzen du-eta.

Epaitegien ebazpenak berba du-

gun eremua ez-urbanizagarria zela adierazi zuen. Ildo horretan eragile ezberdinak adostasuna lortzeko bidean zeuden arren, bidea, antza, eten egin da. Txipio Bai talde ekologistaren ustez, "Inoiz ez zen horrelakorik gertatu behar izan; baina, une honetan gaitz txikiaren alde egiten ari gara: etxeak bertan utzirik, paisaia eta eremu oso hori lehengora itzuli eta babestutako paisaia izendatzea eskatuz. Hala, garai batean egindako etxe horiek

salbuespen hutsa, irla bat izango lirateke, gainerako eremu osoak babestuta egon behar du-eta".

Badirudi Barrikako eragile ezberdinen arteko adostasun falta udal-gobernuaren aldetik etorri dela, Txipio Baikoek azaldu dutenez: "Orain dela hil batzuk, urtarrilean, Bizkaiko Foru Aldundiak txosten ez-loteslea aurkeztu zuen eta horretan eremu hori urbanizagarria izatea defendatzen zuen; horrek eragina izan

du Barrikako udal gobernu-taldean, eta atzera egin dute". Gobenu-taldeak (EAJ), ostera, honako hau adierazi du: "Guk uste dugu Barrikabasoko eremu hori eremu urbanizagarri izendatu behar dugula, eraikitzaileek finkatuta geratu behar dute eremu urbanizagarri horretan. Horrez gain, gure alderdiaren ustez ez da ezer gehiago eraiki behar geratzen diren gainerako lursailetan. Eraikinen ingurutik kanpo geratzen diren lursailetan ez da ezer eraikitzaile eta inguru hori lur-eremu ez-urbanizagarri eta babes berezikoa izendatuko dugu. Bestalde, gure ustez, eraikinen ondoko lurzorua publikotzat jo beharko litzateke".

Bestalde, EH Bilduk zera adierazten du: "Guk defendatzen dugu eremu osoa ez-

urbanizagarria izendatzea, etxeak zutik geratzea eta horiei okupazionalitatea ematea, eta azkenik, babes bereziko ingurutzat kalifikatzea; egindako kalte guztiak osatzeko. Hori lortze bidean geunden, eremua ez-urbanizagarri behin-betiko izendatze bidean, baina Foru Aldundiak txosten hori kaleratu ostean udal gobernu-taldeak atzera pausoak emon ditu". Beraz, desadostasunak badira: batzuek lursail urbanizagarri izendatzearen alde egiten duten bitartean, besteek lursail ez-urbanizagarriaren alde daude. Txipio Baikoek hiru aldiz lortu dute euren aldeko epaia: Barrikabasok ez-urbanizagarria izan behar duela adierazten du. Hala ere, desadostasunak ezin gaindituz dabilta eragile eta alderdien artean. ○





BETIKO
IKASTOLA

Kalitatezko irakaskuntza euskalduna

- 0 eta 16 urte bitartean kalitatezko hezkuntza euskaraz.
- Ingelera 4 urtetik. Frantsesa DBHn.
- Zerbitzu ugari: autobusa, jantokia, merienda, zaintza.
- Eskolaz kanpoko aktibitate ugari.
- Ikastolen Elkartearen Leioako Ikastola bakarra



Ikastolen Elkartea

Deitu eta informa zaituz
Tlf: 94 464 23 64
94 464 33 07
Fax: 94 464 22 05
Helbidea: Artatza auzoa 84
info@betikoikastola.net
www.betikoikastola.net

GAVRKO




GIZONENTZAKO
MODA

Telletxe 5
ALGORTA
Tf. 94 460 70 84

[zinema]

Mendi Film jaialdia Bilbon

Hilaren 13tik 22ra mendiko eta abenturako lanik onenetakoen eskaintza



Messner filmak emongo dio hasiera Mendi Film jaialdiari

VI. ekitaldia beteko du Bilbon egingo den Mendi Film zinemaldiak abenduaren 13tik 22ra. 27 herrialdetatik iritsitako 111 lan jaso dituzte, eta horietatik 40 film hautatu zinemaldiko hamar egunetan Bilboko Alhondegian, Euskalduna Jauregian eta BBK Aretoan ikusi ahaliko direnak. Jabi Baraiazarra areetarra burutako bat duen ekimena "nazioarteko erreferentzia da mendiko eta abenturako zinemagintzan(...), eta mendiko zinemagintza zaintzen eta hedatzen ari da egina-halean sorrenatik. Genero horretako nazioarteko film onenak izango dira ikusgai, eta formatu ikusgarrietan, batzuk, esaterako, 3D formatuan proiektatuko dira".

Zinemaldiari hasiera emoteko (hilak 13, 19:30; Euskalduna Jauregia) Messner (Andreas Nickel, 2012) filma aukeratu dute. Alemaniarzko bertsio originalean eta euskarazko azpidatziakaz ikusi ahaliko da Reinhold Messner (Italiako Tirol, 1944) mendigoizalearen bizitza, filosofia eta lorpenak jasotzen dituen lana. Mess-

ner "ukoaren alpinismoaren" asmatzaile-tzat jo dute: 14 zortzimilakoak igotzen lehena izan zen, uko egin zion zortzimilakoetan oxigenoa erabiltzeari edo soka-lagunakaz eskalatzeari...

Ostera, mendi-kiroletara begirako jaialdia ez da filmak eskaintzera mugatuko: berbaldiak, mahainguruak, erakuske-

«Filmez gainera, bestelako jarduerak ere bai: slackline, ikastaroak, erakusketak e.a.»

tak, kaleko jarduerak e.a. eskainiko ditu, besteak beste: slackline edo soka-lasaieko lehiaketa irekia (hilak 13, 14 eta 15; Euskalduna zubipean) eta erakustaldiak, highline alorrean, waterline-a itsasadarren gainean, trickline dibertigarriak; Jimmy Chin argazkilari-dokumentalistaren gaineko master classa eta erakusketa ere (hainbat metro geltokitan); Santiago Yanizen argazkigintza ikastaroa e.a. ○

Info+: www.mendifilmfestival.com

Gabon-giroko kontzertua

Travellin' Brothers Little Band-aren zuzeneko Andres Isasin hilaren 21ean



Leioaztarren kontzerturako sarrerak (10 euro) salgai daude dagoeneko

Eguberri aurretik bada ere, gabon-giroan murgiltzeko gonbitea egingo du Leioako Travellin' Brothers Little Band taldeak Santo Tomas egunean. Orain dela gitxi arte ohituta gintuzten Big Bandagaz baino, oraingoan Little Bandagaz jardungo dute leioaztarrek, sei-zortzi musikariko taldeagaz. Besteak beste, iazko urrian, Kaki Arkarazoren Garate Estudioetan grabatutako *Christmas Special* (Gaztelupeko Hotsak) CD-EP laneko 6 gabon-kanta klasikoakaz, euskaldunak zein amerikarrak, gozatzeko aukera egongo da ziurrenik; hori bai, berezko duten swing eta blues doinuetan. Oro

har, baliteke, plazaratu dituzten aurreko bost diskoetako beste abesti batzuk entzuteko aukera ere izatea, eta disko barrikoren bat ere agian...

Gainera, urteurren biribila ospatzen dabil 2003an sortutako taldea, hamargarrena beraz.

Beraz, Jon Careaga, Aitor Cañibano, Eneko Cañibano, Ander Unzaga, Isi Redondo, Alain Sancho, Javi Perez eta Juanan Diezek osatzen duten ohiko Travellin' Brothers zuzenean ikus-entzuteko gogoia duenak Areetako Andres Isasi musika-eskolan du hitzordua (hilak 21, 20:00; 10 euro). ○

diskoak

Big Affair
Audience
BideHuts



Mistress Games EP-tik *Big Affair* LP-ra zabaldu du Gernikako taldeak bere proposamena. 9 kantu ingelesez eta euskarazko bi jasotzen ditu lan barriak. "Kontu garrantzitsuen" diskoa New Jersey-ko (AEB) Water Music estudioetan John Agnello ekoizle ezagunagaz grabatu dute, diotenez horren parte-hartzeak "soinua zabaltzera" eraman ditu.

Hautsi...ta izan zaituz
Damba
Autoekoizpena-Kameluak



Euskal Herria, Kuba, Venezuel eta Madrileko musikariz osatutako taldeak bigarren lana euskara hutsean plazaratu du. Estixu Pinatxoren eta Aitziber Estangaren ahots gozo-indartsuak gidari, rumba, blues, punk, son, reggae, funk, rock eta musika elektronikoko doinuak eskaintzen dituzte; letrak osatzeko Miren Amurizaren parte-hartzea izan dute.

Agerre
Kauta
Baga-Biga



Lau urteko isilunearen ostean auzueku du talde andoaindarrak laugarren diskoa. 11 abestik osatzen dute Agerre eta Garate estudioetan grabatu dute, Kaki Arkarazoren ekoizpen lanetan gidari zutela. Aurreaurkezpeneko zuzenekoaren bat eskaini badute ere, lehenengo kontzertua abenduaren 7an eskainiko dute Durangoko Plateruena antzokian.

disko-bilduma > Hala Bedi

Xabier Montoia, Betagarri, Gari, Willis Drummond, Ortophonk, Izaki Gardenak, Hesian, Anai Arrebak, Indarrap, Pakia beyau, Bronze, Sumision City Blues, Neubat, The Allnighters, Sixty Sexers edo Johnny & Joseph taldeek moldatutako 15 kantu ezagun jasotzen ditu *Hala Bedi* irratia 30 urtez kolpez kolpe disko-bildumak (10 euro). Urteurrena ospatzeko prestatu dituen hainbat ekimenen artean, Gasteizko irratia libreak azkeneko hiru hamarkadotako 15 abestiren bertsioak bildu, musikari ezagunak horiek bertsionatzeko konbentzitu eta diskoa plazaratu du. Gasteizko Hala Bedi tabernan, Bonbereneako interneteko dendan eta Durangoko Azokako Bonbereneako sal-mahaian eskuratu ahaliko da.

Info+: www.bonberenea.com

single barria > We Are Standard

Pasa den hil amaieran aurkeztu du WAS-ek "Something Bigger" single barria. Oreak TX-koakaz alkarlanean egindako hiru abestietako bat da, eta euskarri digitaallean eskaini dute. Gainontzekoak ezagutzeko apurtxo bat itxaron beharko da edo... Iragan apirillean plazaratutako *Day* estudioko lanean taldearen norabide barria antzeman daiteke, taldearen esanetan ez hain elektronikoa, dantzalekuetako ohiko doinuetatik urruntzen dena, kanta argitsuagoak, psikodelia kutsukoak, 60ko hamarkadako garage taldeen oihartzunagaz... Hilaren 27an Kafe Antzokian (Bilbo) izango dira.

Info+: www.wearestandard.net

Garaizar barrikuntzak

- igeltsaritza orokorrean
- lokalak eta etxebizitzak
- gremioak

Tf. 944 430 52 43 / 607 952 977 -6 • regaraizar@euskalnet.net
www.garaizar.biz
Ilieta kalea 1 • ALGORTA

Zurikaldai

JOKIN GARATE BAYO KIMETZ GARATE AZURMENDI
Neguriko Etorbidea 9 Aingeruaren etorb. 4B
T: 491 14 87 (sarrera, Jata Mendia) T: 460 01 87
48990 NEGURI 48990 GETXO

Getxoko Andra Mari Gasolindegia

Txartel hau
aurkezten baduzu
%50eko
deskontua
izango duzu zure
autoaren garbiketan

Getxo eta Berango artean

Tf. 94 430 15 00

(15 eguneko epemuga)

I

Iñaki Bitxitegia

OMEGA, LONGINES ETA TAGHEUER
AGENTZIA OFIZIALA

Villamonte plaza 3 Tf. 94 430 23 45
Telletxe 1 Tf. 94 460 27 41

Algorta

[literatura]

Idazleakaz zuzenean

Uxue Alberdik eta Miren Agur Meabek azken lanak berbagai **Sopela eta Algortan**

Han eta hemen Durangoko Azokaz berba egiten, entzuten, bisita-prestatzen gabiltzan honetan, eta bide batez, Aho-tseneako aurkezpen-egitarauari arretaz begiratzen badiogu ere, gure agendetan hurbilagoko proposamen interesgarriei ere lekua egin beharrea gaude. Izan ere, Sopelan eta Algortan literaturagaz hitzordu garrantzitsu bi antolatu dituzte.

Batetik, hilaren 5ean, eguena, Sopelako Kurtzio kultur etxean Uxue Alberdik idazle eta bertsolariagaz literatur solasaldia iragarri dute. Hitzordua arrastiko 19:00etan izango da eta Elgoibarko bertsolari, artikulugile, itzultzaile eta idazleak orain dela hilabete eskas plazaratu duen *Euli-giro* (2013, Susa) ipuin-liburua izango du berbagai. Bederatzi narrazioz osatu-

«Hitzorduak hilaren 5erako eta 19rako ipini dituzte»

tako lanaz idazleagaz beragaz jarduteko, galdetzeko, zalantzak argitzeko eta gogoe-ta egiteko aukera parebakoa beraz.


Bestetik, Uribe Kostako Irakurzaleen Txokoak ere urteko azken elkargunerako zita ipini du: abenduaren 19an, eguena, 19:30ean, oraingoan Villamonte kultur etxean. Horretarako, Miren Agur Meabe



Miren Agur Meabe (Lekeitio, 1962)

idazle lekeitiarra gonbidatu dute, martxo aldera kaleratu zuen *Kristalezko begi bat* (2013, Susa) nobelaren gainean berba egiteko. Irakurtzeko bitartea duzu oraindik, bihoa kontrazaleko hau hastapen-dastagai moduan: *«Emakume baten mintzoa aditu-ko duzu liburua zabaltzeaz batera: begi bat galdu nuen nerabezaroan; minbiziz hil zitzaidan ama; dibortziatua naiz eta seme bat daukat; lantokian kontua eskatu nuen iaz, orain enkarguzko lanak idaztetik ateratzen dut bizibidea; berriki utzi egin dut maite-laguna eta harrezkero gaixotuta...»*. Errealitatearen eta fikzioaren sarea josten duen kontakizuna da. ○

liburuak



Izotz zuloa
Olatz Bravo
Erein

Jeloskortasun egoerari aurre egiteko gakoak eskaintzen ditu Ainara Azpiazuren marrazkiak daroan Bravoren ipuinak. 7-9 urte bitarteko haurrei begirako lanak. Neba-arreba txikia jaiotzean hainbat umek sentitzen duten gatazka azalarazten du Marko pinguinoren istorioak.



Nire entzule maiteak
J. B. Eguzkitza
Labayru Ikastegiak

Juan Bautista Eguzkitza (Lemoa, 1875-1939) lehene-tako euskaltzain izan zen; irakasle, abade, itzultzaile eta euskaltzale. Berbetan zein idatziz zenbait hedabidetan parte hartu zuen. Sermoilari-tzat zuen bere burua; hala, bere sermoien aukeraketa eskaintzen du lan honek.

[kirola]

Kimet planning-a

Software barria aurkeztu du **Getxoko Udalak** euskarazko entrenamenduetarako



Athleticeko hainbat jokalaririk izan ziren Kimet Planning software-aren aurkezpenaren

Futbol entrenamenduak euskaraz planifikatzeko eta egituratzeko Kimet Planning izeneko software informatikoa aurkeztu du Getxoko Udalak. Ekitaldian Getxoko Euskara zinegotzi Koldo Iturbe, Kimet Sporteko kirol-zuzendari Garikoitz Fullaondo eta Jose Angel Iribar Athletic-eko atezain ohia izan ziren. Udalak orain dela urte batzuk futbol alorrean martxan jarri zuen Pasa Baloia Euskarari programaren barruan kokatzen da aurkeztutako plana.

Kimet Planning softwarea benjamin, kimu, haur, kadete eta gazte mailako jokalariei begirakoa da, eta helburu du 8 eta 18 urte bitarteko umeen eta gazteen artean euskararen erabilera sustatzea. Kimet Planning-en darabilen materiala sarean lor daiteke, horretarako webgunean sartu ahal izateko Getxo Kirolak-ek erabiltzaile-kodea eta pasahitza emango dizkie futbol taldeei. Kimet Sport enpresak materiala mantendu eta eguneratuko du. Eskaintzen dituzten gauza guztien artean, entrenatzaile-

le eta kirol teknikarientzako urte osoko planifikazioa egiteko aukerea, saio-antolaketa eta bestelako material zehatza dago. Lau urterako proiektua da, eta behar duenak bere beharretara egoki dezake.

Tresna informatikoaren aurkezpen publikoa Fadura kirolgiko batzar-aretoan

«8-18 urte bitarteko gazteen artean euskararen erabilera sustatzeko asmoz»

antolatu zen, bertan zeuden udalerriko klubetako eta taldeetako entrenatzaileei software informatikoa erakusteko. Ekitaldian Athletic-eko jokalaririk Gorka Iraizoz, Mikel San Jose eta Eli Ibarra ekimenaren alde agertu ziren, bertaratu ziren teknikarrien eta publiko interesatuaren aurrean. Gainera, kiroldegiraino hurbildu ziren 200 ume baino gehiagori kamisetak eta argazkiak sinatu zizkieten futbolariak. ○

Info+: kimetsport.com/es/kimet-planning/que-es-kimet-planning

BISITATU GURE DENDA!

MOROTXO

Kantxa
Kirol moda




350 M²
KIROLERAKO GUZTIA!!

URIBE KOSTAKO
KIROL DENDA

TORRENE 4, ALGORTAKO AZOKA
48990 ALGORTA / TF. 94 491 18 82

ETXEKO ELEKTROTRESNEN KONPONKETA

Lacofris, s.l.



- MARKA GUZTIAK
- 24 ORDUTAN ERANTZUNA
- 3 HILABETEKO GARANTIA
- 25 URTEZ ZURE ZERBITZUAN
- IRTEERA DOAN

Tf. 94 430 52 00 Kasune 18 • ALGORTA

Alberto Galindo eta Patxi Lasa > Bizilagunak ekimena

“Integratzeko eta nirea ezagutarazteko prest nago, sustraiak alboratu barik”

Bizilagunak-Aldameneko familia ekimena antolatu zuten Egizuk, Getxoko Etorrinak Plataformak eta Udalak. Bertako familiek atzeritik etorritakoak alkarregaz bazkaldu zuten, beren errealitatez hitz egiteko, azaroaren 17an: kontua zen gune informala sortzea, beste pertsoneri buruz estereotipoak baino ez ei ditugulako ezagutzen normalean. Patxi Lasak eta Alberto Galindok alkarregaz bazkaldu zuten.



Getxon 32 familiek parte hartu zuten bazkarietan

—Zelan joan da bazkaria?

—(A) Esperientzia apartekoa izan da. Horrelako ekimenak beharrezkoak dira, ohi-turak partekatze eta alkar ezagutzeko. Apur bat gehiago ezagutu dut euskal kultura, esatea gu oso ondo hartu gaituela herri honek; Boliviatik 2001ean joan ginen Valentziara eta 2003an etorri ginen Getxora. Euskaldunak kulturadunak dira, herri solidarioa eta abegitsua da. Elkar bateko buru izan naiz eta antzeko ekimeneetan parte hartu dut. Bisitaria naiz herri honetan eta, sartzen uzten badidate bete behar ditut arauak eta ohi-turak; integratzeko prest nago eta, era berean, nire kultura ere ezagutzera emoteko: garrantzitsua da sustraiak ez alboratzea.

—(P) Esperientzia xarmangarria izan da, etxekoa, eta hori garrantzitsua da: ez da izan banakakoa, baizik eta senide-taldekoa, alkar ezagutuz. Eta arrastoa utzi digu: gerora bazkariak hitz egiten jarraitu dugu. Horrelako ekimenak dira sakon sartzeko direnak; ez dira teoria hutsa: maila pertsonalean bat egiten duzu.

—Gauza horiek bultzatu zintuzteten parte hartzea?

—(P) Nik beti sentitu dut gai honekiko

ardura eta etxean hitz egin ohi dugu kulturartekotasunari, eta desberdintasunaren errespetuari eta aberastasunari buruz. Horrelako esperientziak beti dira positiboak, ikasten duzulako.

—(A) Beti nago prest bertakoak ezagutzeko. Egia da arrazakeria toki guztietan dagoela, baita nire herrian ere, baina aurre-

modu barria hastea. Ondo har gaitzaten besterik ez dugu gura eta Getxon alkarbitzita oso polita da. Valentziatik igaro ostean harrituta lotu nintzen zelan hartu gintuzten: oso gustura gaude.

—(P) Nik uste emigranteak direla pertsonarik indartsuenak, oso gogorra delako bizimodua atzean uztea eta hemen bidea

“Esperientzia xarmangarria izan da eta arrastoa utzi digu; horrelako ekimenak dira sakon sartzeko direnak, ez dira teoria hutsa”

ritzi horiek bakan batzuek dauzkate: kulturadun jendea zabalik dago entzuteran, eta nik ere ikasi dut transmititu didatena-gaz. Bide hori jarraitu behar diogu, bai bertakoek, bai atzerritarrek, eta alkar ezagutu. Pertsona bakoitzak historia bat dauka, etorri bakoitzak pena bat dakar: oso gogorra da herria eta familia utzi, eta bizi-

zabaltzea. Orain, gainera, esaten zigutenez, seme-alabek bertan lotu gura dute, bertakotua daudelako, eta egoera horri ere aurre egin beharko diote. Nik flipatu egin nuen euren bizitza ezagutzeko, muturreko egoerak bizi izan dituztelako. Gainera, Gabonen ostean buelta egingo dugu, bazkaria gure etxean. ○

Aritz Bergara

Atal honetan agertzen diren testuak eta ilustrazioak “Euskal Herriko Mitologia. Jentilen aztarnen atzetik” proiektutik ateratakoak dira. Adarmendi eta Orritz euskal kultur elkarteek bultzatutakoak. Materialak ikusteko edo informazio gehiago lortzeko www.euskalherrikomitologia.com webgunera jo.



Aideko. Ilustrazioa: Daniel Castello

Aidekoren koplak

Aideko madarikatua,
leku guztietan zaude
eta inon ez, ikusezina baitzara.

Zure presentziarekin
kalteak edo gaixotasunak sortzen dituzu
eta irteera bakarra magia da.

Nola harrapatu ikusten ez dena?
Nola borrokatu bere kontra?
Nola defenditu zeure burua?

Edozein zuloetatik sartzeko gai,
edozein pertsona edo animalia
kaltetzeko prest.

Nahiz eta haizea ez den ikusten,
inork ez du esaten
existitzen ez denik.

[badaukazu non aukeratu]

Taberna eta jatetxe asko ditugu gurean. Gida honetan aukeraketa xumea aurkeztu gura dizugu, aniztasuna albo batera utzi barik, eta gozaten has zaitezten.



portu zaharra bar
 Portu Zaharra kalea 35
 48991 Algorta - Getxo (Bizkaia)
 Tf. 94 460 20 33
 portuzaharra@portuzaharra.com
 www.portuzaharra.com



SOLAETXE
 Eguneko menua **Jatetxea** Karta
 Asteburuko menua Oilasko erretegia
 Sarriena auzoa 166 - 48940 Leioa (Bizkaia) Tf. 94 463 24 87 Fax. 94 431 69 55 www.restaurantesolaetxe.com



PINTXOAK
OSTIRAL ETA LARUNBATETAN:
 RAZIOAK- BOKATAK- PLATER KONBINATUAK
AFARIAK ETA URTEBETETZEAK ENKARGUZ
 Tf. 94 656 68 51 Bidebarri 2, ALGORTA



berezi
 Hanburesak Ogitartekoak
 Sanwichak Plater konbinatuak
 SABINO ARANA 34 48640 - BERANGO
 ESKAERAK: 94 668 10 64 (BERTAN JASOTZEKO)



BODEGUILLA BUTRON
 Bidabitarte, 4 y 5 - Algorta (Getxo)
 94 430 01 74
 www.bodeguillabutron.com



txakoli mota gane txakolina
 Leioa-Unbe errepidea 34 (Akarlanda Parkea) Gohierri-Erandio
 Tf. 94 467 00 07 www.txakolimotagane.com



UNAI TABERNA JATETXEA
 C/ Alangobarrri n°3 C.P. 48991 Getxo Telf. 94 466 16 61



JAN-TOKI ORMAZABAL
 Eguneko menua
 Menu bereziak
 Karta
 Erreserbak:
 94 476 2389
 607 21 89 61
 LUTXANA-ERANDIO



LURRIN
 GOSARIAK
 PINTXOAK
 KOPAK, MUSIKA ETA GIRO EDERRA
 SOPELA
 Ripa Kalea 1 (Udaletxe atzean)



GURE ETXEA taberna
 HAMBURGESAK, PINTXOAK ETA GIRO EDERRA
 Caja de Ahorros, 14 - Romo / T. 94 463 68 80

Zure taberna edo jatetxea hemen agertzea gura baduzu ipini gugaz harremanetan:
94 491 13 37
publiuk@aldizkaria.biz

[pintxotan]

Barazkizaleentzat

falafelaren ahogozoa nagusi



Falafela egiteko garbantzuak egun oso bat utzi beharko ditugu beratzen

Agur esan diogu Sopelako Lurren tabernari Algortara joateko; bertan Bidebarri kalean Abian-elkartea, herriko taberna dugu. Hara sartu, eta pintxo goxoak topatu ditugu; gaurkoan, baina, falafel-pintxoak ekarri dizugu. Falafela egiteak lana ekarriko digu, baina behin falafela egin da, aprobetxatu, eta kantitate handia egin, izozkailuan hurrengorako ere gordetzeko. Hala, garbantzuak beratzen utziko ditugu egun oso bat. Beratzen utzi ostean, horiekaz batera, azenarioak, perrexila eta berakata txiki-txiki egingo ditugu, ondoren nahasketari sesamoa gehitzeko. Beraz, garbantzuak eta osagai guztiak bol batean sartu eta eskuez nahastuko ditugu. Behin hori guztia elkarregaz nahastu dugula, oreka atsedean hartzen

utziko dugu, ostean gatza eta zenbait espezia botako dizkiogu; cous-cousa egiteko erabiltzen diren espeziak. Horien artean, besteak beste, curry eta kominoa; koilarada erdi bana. Hori egin ostean, oreari forma emoten hasiko gara bola txikiak eginez, eta horiek ogi birrindutan pasatu eta frijitzen hasiko gara. Behin frijitututa gure pintxoak eraikiko dugu; hortaz, ogi zati batean maionesa jarri, uhaza eta tomate zati bat jarriko ditugu, erdian falafela. Gainean, tipula gorritua eta ahuntz gazta zati bat jarriko dugu, eta azkenik, beste ogi zati bat. Hala, prest da barazkizaleentzako pintxo aproposa! ○

Osagaiak: garbantzuak, perrexila, berakata, azenarioa, gatza, espeziak, ogi birrindua, tomatea, uhaza, maionesa, ogia, ahuntz-gazta, tipula, sesamoa



Croissanterie Briocherie
 MONIE JAIA 1
 48997 Getxo (BIZKAIA)
 CROISSANTERIE-GETXO.BLOGSPOT.COM
 94 460 86 48




BASARTENA
URDULIZ
 Teléfono: 946 761 128



JUAN-MARI
Harategia eta txarkuteria
ARTESANA
 LAS MERCEDES 31 • Tf. 94 464 41 25
AREETA



KONTXI ZUAZUBISKAR
URDAITEGIXA
 Adituak gara, Urdaiazpiko Iberiko, Pate eta Gaztaietan!!
 Alangobarrri 10, ALGORTA
 Tf. 94 491 02 93



TXIBERRI edantokia
frontoi partikularra
 Aita Gotzon 4, URDULIZ
 Tf. 94 676 07 15



Taberna Berri
 Sarrikobaso 4 -ALGORTA
 Tf. 94 430 64 93



prentsa • aldizkariak

GETXOKO KIROL PORTUA
Arriluze z.g. • Tf. & Fax: 94 491 53 21
ALGORTA • GETXO

Torrene 2
48990 ALGORTA
94 491 12 71
iratialgorta@gmail.com

irati

OPARIAK MODA GAZTEA

GOIZEAN



"Gozoki eta prentsa, gutxi denik ez pentsa"

Prentsa - Fruitu lhorrak - Aldizkariak - Liburariak

Orduña Mendatea 1
Tf. 94 430 22 13
GETXO

**uk zure
publizitatea
hemen !**

94 491 13 37 - publiuk@aldizkaria.biz

[horoskopoa]

URA



(Abenduak 21 urtarrilak 19)
Aurten topera zabilta kulturagaz:
Bertsolari-Txapelketa zuzenean
jarraitu duzu hasieratik eta finalean
ere izango zara. Pasta-beturrekoak
erosi beharko dituzu...

AITZURRA



(Martxoak 21 apirilak 19)
Medikuarengana joan eta lasaitzeko
aginduko dizu, azkenaldian topera
zabiltzalako. Egoizu kasu eta lasai
hartu bizitza, oraindino urte asko
gozatu behar duzu-eta!

GARIA



(Ekainak 19 uztailak 18)
Irakurzaleen Txokoko solasaldi batean
parte hartu eta lilurata lotuko zara.
Irakurtzeko gogoa piztuko zaizu eta
liburuak irentsiiko dituzu barra-barra.
Liburuetgia hustuko duzu azkenean.

META



(Irailak 17 urriak 16)
Kostata baina hasi zara klaseko lanak
egiten eta ikasten. Eskerrak, azterketak
laster datoz-eta! Gogotsu ekin diozu eta
emaitzetan islatuko da: nota itzelak
lortuko dituzu, beraz ez etsi!

OTSOA



(Urtarrilak 20 otsailak 18)
Umeak urduritzen hasi dira Gabonak
datozelako, Olentzerok zer ekarriko
ote. Zu, barriz, arduratuago zaude
Santo Tomas egunagaz eta zahatoan
sartuko duzun ardoagaz...

HOSTOA



(Apirilak 20 maiatzak 19)
Mendizale porrokatua izanik barruan
ezin kabitu zabilta hainbeste euri eta
ekaiz. Pentsa bestelako txangoak
egiteko aukera daukazula orain:
herrian paseatu, e.a.

LASTOA



(Uztailak 19 abuztuak 17)
Zortziko txikia, handia... Bertsioen
profesional bihurtu zara txapelketa
nagusiaz. Urduri zaude finalagaz
baina, garrantzitsuen: zer bazkalduko
duzu han, menua edo bokata?

HAZIA



(Urriak 17 azaroak 15)
Hilabete pare bat daroazu dirua
aurrezten Durangoko Azokan liburu eta
disco mordoa erosi ahal izateko. Baina
zuk ez dakizu gaur egun hori dana
internetetik jaitz daitekeela?

ADARRA



(Otsailak 19 martxoak 20)
Inguruko guztiek joan gura dute
Durangora, baina zu kokoteraino
zaude hainbeste sasi-kultur zalegaz.
Zoaz tabernetara eurek kulturizatu
bitartean...

EGUZKIA



(Maiatzak 20 ekainak 18)
Hilabete honetan geratzen zizaitzizun
sos apurrak gastatu dituzu Bertsolari-
Txapelketako finaleko sarrean. Asko
gozatu emanaldiagaz, Durangoko
Azokan ezingo duzu-eta ezer erosi.

IRATZEA



(Abuztuak 18 irailak 16)
Txikitatik gustuko izan dituzu animaliak
eta pozarren joango zara Leioako
azokara: behi, zaldi, oilo, txori... danakaz
primeran moldatuko zara; euren
hizkuntza hitz egiten ikasi duzu ala?

NEGUA



(Azaroak 16 abenduak 20)
Zein pozik zauden zure urtebetetzea
gerturatzean. Aurten, gainera, jai handia
prestatuko duzu. Primeran pasatuko duzue
eta lagunak eskertuko dizute ahalegina:
opari pila jasoko duzu zure egunean.



Kopiak
SALGAI
UK aldizkariaren
bulegoan



Uribe Kostako
aldizkariaren
ekoizpena



gaztetxoak > denborapasa

LUMA aldizkariaren eskutik

Zutabe eta lerro guztien baturen emaitzak idatzirik dituzula kontuan izanda, emon egizu animalia bakoitzaren balioa.

					17		=	
					25		=	
					14		=	
					6		=	
					12		=	
15	15	15	13	16				

gaztetxoak > bilatu eta irabazi

Zenbat egun ditu euskarak?

- Bakarra
- Euskarak 365 egun!
- Eskola-orduak baino ez

La Gusana liburudenda SARIA
 Tellagorri plaza, Algorta
 Tf. 944 911 412 **lagusana**

> Aurrekoaren erantzuna: perretxikoak, zizak, onddoak
 > Irabazlea: **Xabier Uriarte***
 *deitu telefonoz: 944 911 337

ez horren gaztetxoak > non da?



Uribe Kostan ateratako argazkiaren hurbileko irudia duzu atal honetako protagonista. NON eta ZERI ateratakoa den badakizu?

SARIA **Oinutsik** kontsulta podologikoa
 Zubigane 4, Sopelana
 Tf. 944 047 420
 oinutsik@euskalnet.net

> Aurrekoaren erantzuna: Azaroaren 25a
 > Irabazlea: **Naiara Landa***
 *deitu telefonoz: 944 911 337

Bidali erantzuna eta zure izen-deiturak uk@aldizkaria.biz helbide elektronikora edo 944 911 337 telefonora deitu



PAKIKO URRETXUAK UTZITAKO ARGAZKIA

BIOTZ ALAI ABESBATZAKOAK ZESTOAN, 50EKO URTEETAN

Biotz Alai abesbatzaren hastapenetako argazkia dugu gaurkoa. Antza, txangoak egin ohi zituzten hara eta hona: abeslariakaz batera lagunak ere joaten ziren, esaterako Pakiko Urretxua (argazkia utzi diguna). Txango horietako batean Zestoa bisitatu zuten eta ordukoa da irudia: urtea ez dakigu ziur, baina 50eko urteetako da. Urteera egiteko autobusa alokatzen zuten, Bilbao-Vitoria lineakoa. Alkarregaz bazkaldu eta herriko tabernetan ibiltzen ziren kantu-kantari, tragoa eskuan... Urretxuak kontatu duenez, egun hartan Zestoa aukeratu zuten bere aitak familia zeukalako bertan. o

Atzeko lerroan (zutunik): Juana Mari Cajigas, Eukene Gallastegi, Jon Amezaga, Angel Uriguen (apaiza eta abesbatzaren zuzendaria), Mari Cruz Bretos, Juanita San Anton, Turrez? eta Juantxu Ortiz.

Aurreko lerroan (makurtuta): Joseba Imaz, Rafa Pacho, Jesus Cea, Habi Aranbarri eta Aintzane Sorozabal.

JUNE ANSOLEAGA > kazetaria

“Erokeria askorik ez dut egiten, neska nahiko formala naiz”

Testua: **Ixone Vega** Argazkia: **EITB**



Defini ezazu zeure burua berba bitan.

Bitan izan behar badu... alaia eta urduria.

Zein filmetan egingo zenuke protagonistaren papera?

Normalean ez naiz protagonista zale, baina Julia Roberts *Erin Brockovich* filmean izango nintzateke; kazetaritzarekin lotura duelako.

Zer barik ezin zaitezke bizi?

Gaur egun sakelako barik, edonora eramaten dudalako.

Zure haurtzaroko oroitzapen bat?

Gabonak etortzen zaizkit burura, familiaratean egiten diren afariak ,eta opariak zabaltzea!

Parrandarik politena non?

Nire koadrilako lagunekin herriko jaietan.

Zein barri gura zenuke irakurri biharko egunkarian?

Euskal Herrian langabezia ia desagertuta dagoela.

Barriz egingo zenukeen bidaiarik badago?

Egin ditudan gehienak, baina Ander Deuna ikastolarekin Saharako errefuxiatuen kanpamentu batera joan ginenekoa oso aberasgarria eta polita izan zen. Berririo egingo nuke, baina oraingoan lagunekin.

Eguna ala gaua? Zergatik?

Eguna, baina orain asteburutan lanean nabilela gaua faltan botatzen dut.

Zein da zure ametsetako bat?

Profesionalki behintzat nire ametsa bete dut, azken finean beti gura izan dudana lekuan kazetari lanean ari naiz.

Zer edo nor eroango zenuke irla isolatu batera?

Mutil laguna eraman beharko dudala suposatzen dut... kar kar.

Azken aldian egin duzun erokeriarik handiena?

Erokeria askorik ez dut egiten, neska nahiko formala naiz. ◊

LABURREAN— ETB1 eta ETB2ko zapatu eta domeketako *Eguraldia* saioko aurkezle barria da June Ansoleaga (Sopela, 1987). Sopeloztarra bekadun hasi zen ETBn, albiste tartean lan egiteko; ordutik, *Teleberri* albistegirako eta *Gaur Egun* telebista programarako erreportari lan egin du denbora luzez. Oraingoan, eguraldia aurkezteko erronka barriari ilusio handiz aurre egiten dio, nahiz eta orain arte egindakoagaz zerikusi handirik ez izan: “*oraingoan beste alde ezberdin batean nago*”.

BADIRA ATE BAT IREKITZEAN HASTEN DIREN AMETSAK

“ Graduko azken ikasturtea atzerrian egiteko abagunea eman didate, eta neure burua aberasteko oso baliogarria izango delakoan, ez diot aukerari uko egingo.

Matxalen Palacio,
Lidergo Ekintzailea eta Berrikuntza,
4. maila.



PREST

MONDRAGON
UNIBERTSITATEA

ATE IREKIAK

GOI ESKOLA POLITEKNIKOA

ARRASATE · **ABENDUAK 14**

Larunbata, 10:30 / Areto Nagusia

ENPRESAGINTZA FAKULTATEA

OÑATI · **ABENDUAK 12**

Osteguna, 18:00 / Areto Nagusia

BIDASOA · **ABENDUAK 14**

Larunbata, 11:00 / Areto Nagusia

BILBAO · **ABENDUAK 13**

Ostirala, 18:00 / Areto Nagusia

GASTRONOMIA ZIENTZIEN FAKULTATEA

DONOSTIA · **ABENDUAK 14**

Larunbata, 10:30 / Auditoriuma

ONLINE ATE IREKIAK

ABENDUAK 17

Asteartea, 18:00 (Euskaraz) / 19:00 (Gaztelera)

<http://mukom.mondragon.edu/mutb>

ETORRIKO ZARELA JAKINARAZI

902 110 436

www.mondragon.edu/prest



Aurten zure laguntza beharko dugu Getxolandian. Erakutsi zure sormena eta margoztu kartela gehien gustatzen zaizun moduan.



getxolandia

2013-2014

(5 bidaia
viajes)
3,50€

Areetako
Geltokia plaza
Plaza Estación
de las Arenas



ITXITA / CERRADO: 25-12-2013 / 1-1-2014

ABENDUAren 20tik URTARRILAREN 4ra / Del 20 de DICIEMBRE al 4 de ENERO:

11:00 - 14:00 / 17:00 - 21:00

ABENDUAren 24an eta 31n eta URTARRILAREN 5ean / Dias 24 y 31 de DICIEMBRE y 5 de ENERO:

11:00 - 14:00 / 17:00 - 20:00